

EMAKUME NOBLEA BEHE ERDI AROKO EUSKAL HERRIAN: JUANA DE BUTRÓN MÚJICA



LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Gradu Amaierako Lana
HISTORIA GRADUA
Euskal Herriko Unibertsitatea

Olatz Abad Ortega
Zuzendaria: Ekaitz Etxeberria Gallastegi

Aurkibidea:

Sarrera

1. Emakumeen Historia espainiar historiografian eta Erdi Aroan

- 1.1. Hastapenak
- 1.2. Hispaniar Historiografia
 - 1.2.1.1. Ibilbidea
- 1.3. Ikerlanaren problematika eta korrante historiografikoak
- 1.4. “Emakumea eta boterea” ikerlanak
 - 1.4.1. *Queenship*

2. Emakumeak Erdi Aroan

- 2.1. Iturriak
- 2.2. Erdi Aroko bizitza
 - 2.2.1. Erlijioa
- 2.3. Emakume nobleen boterea
 - 2.3.1. Ondare kudeaketa eta administrazio femeninoa
 - 2.3.2. Guda, bitartekaritza eta diplomazia
 - 2.3.2.1. Maria Sarmiento

3. Euskal Herriko emakume nobleak

- 3.1. Morala
- 3.2. Erlijioa
- 3.3. Ezkontza
 - 3.3.1. Adingabeak
 - 3.3.2. Senar-emazteak banatzea
- 3.4. Oinordetza
 - 3.4.1. Maiorazkoa Bizkaian
- 3.5. Erreginaltasuna
 - 3.5.1. Bizkaiko andreak Jaurreriko buru Erdi Aroan
 - 3.5.2. Andre Feudalak
 - 3.5.3. “Las apoderadas”
 - 3.5.4. Ekintza politikoetan parte hartzea
- 3.6. Krimena
 - 3.6.1. Emakumeen aurkako indarkeria

4. Juana de Butrón Múgica

- 4.1. Genealogia
- 4.2. Salazar leinua
 - 4.2.1. Lope García de Salazar
- 4.3. Ezkontza eta zuhaitz genealogikoa
- 4.4. Bando gerrak eta testuinguru historikoa
- 4.5. Maiorazkoa eskuratzeko tirabirak Salazar familian
- 4.6. Gatazkak
 - 4.6.1. “*Las bienandanzas e fortunas*”
- 4.7. Elementu materialak: San Martín de Muñatones

Ondorioak

Bibliografia

Zergatik Juana de Butrón bezalako emakume noble batek gure atentzioa merezi du?

Laburpena:

Juana de Butrónek (1400-1469), Lope García de Salazar-en emaztea, bere semearen etorkizunaren alde borrokatu zuen, senarraren aurka. Familia zatituko zuten liskarrak aztertuko ditut, izan ere, oinordekotza arazoak egon ziren eta elkar egindako lehen maiorazkotik 1451an, arazo asko agertuko dira. Juana andreak, Bizkaiko ohitura tradizionalak jarraituz, bere seme nagusiaren alde jokatu zuen. Istorio berezi eta konplexu honetan, emakume honek izandako protagonismo aktiboa plazaratuko dut, zeinak 1469.urtean bere kabuz maiorazkoa egin zuen, Loperen nahien kontra.

Hitz gakoak: Emakumeen historia, Juana de Butrón, boterea, maiorazkoa.

Sarrera:

Oro har, gizonen historia guztion historiatzat hartu izan da, gizadiaren beste erdia, emakumeak, manipulaturik eta ahaztuz. Erdi Aroko literatura-iturri gehienak gizonaek idatzitakoak dira. Hala ere, lan honen bidez frogatu nahi dut behe Erdi Aroan emakume nobleek izan zuten benetako garrantzia argitaratu ematen duten datuak aurkitu direla, garaietan zehar eman zaien ikuspuntutik urrun. Zorionez, joera berriak sortzen ari dira, hala nola, “arkeologia feminista”, historian zehar emakumearen eginkizunari buruzko alderdi asko birplanteatuz. Antzinako indusketen argazki askotan, arkeologoa edo historialaria gizon bat dela ikusten da, iragana eraikitzeke protagonista delarik (Sánchez, 2005:17). Hala ere, berdintasunezko mundurantz bideratzen ari gara, eta Historia ezinbestekoa da hori lortzeko. Indarrean dagoen legediak emakumeen historiaren edukiak ikasgeletan txertatzeko beharra azpimarratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 17.b artikulua egiten duen bezala. Hala ere, testuliburuetan gabeziak daude nahiz eta baliabide didaktiko nahikoak izan (Castrillo, 2020:122).

Hori dela eta, Euskal Herriko emakume noble baten bizitza ikertuko dut, Juana de Butrón bezalako nobleak subjektu aktiboak izan zirela frogatzeko. Testuinguru historiko honetan emakumeak familian duen lekua ulertu eta balioztatu ahal izateko, kontuan hartu behar dira ahaidetasun-sareak, horiek etxetik harago hedatzen baitziren. Ondare, ohore eta ospearen arabera ezarritako barne-hierarkia errespetatzen zen. Gure kasuan, hierarkia altuko emakume bat izango da, bere senarra Ahaide Nagusia baitzen. Baditugu adibide batzuk non

leinuren baten buruan zeuden andreak jaun feudalen gobernu-funtzioak bete zituzten, jaunak eta andreak partekatutako zeregin gisa, baita modu autonomoan zegoen emakumearena ere, Zestoako kontzejuan bizi zen Maria Ochoa de Liconak egin zuen bezala. Hori dela eta, hiribilduak sortu eta pribilegioak eman, pleitu-omenaldiak jaso, legeak egin eta beste leinu eta basailuekin akordioak lortu, kargu ofizialak izendatu, lehen instantzian epaitu, errenta feudalez jabetu, elizaren zaindari gisa jardun eta Gortearekin harremanak izan. Gainera, bere lurak, burdinolak eta abar kudeatzeko politikak garatu zituzten (Castrillo, 2020:149-153). Batzuetan, arlo militarrean lan defentsiboak egin behar izan zituzten, Lope García de Salazarrek 1380an bere kroniketan kontatzen duen moduan. Izan ere, Juana Gonzalez de Agüero, Múgicako andreak, Agüerora joan zen eta Gonzalo Gómez de Butrón suhiarekin batera, eskualdeko borroketan enkarterrietako leinu jakin bati laguntzera: “*vino doña Juana González, Señora de Múgica, e Gonzalo Gómez de Butrón, su yerno, que era moço, e algunos escuderos de Butrón, que açercaron en Agüero e pelearon en la Sierra de Ría, que es entre Castillo e Venero*” (Castrillo, 2021:344). Euskal Herritik kanpo, zehazki, Aragoi eta Gaztelan, gai horri “erreginaltasuna” terminoarekin definitu ahal daiteke, emakumeek erresuma horietako gatazka politikoetan duten eraginaz hitz egiteko, eta gure lurraldean garatzeko zain dago. Helburu nagusia Juana de Butrón andreak zer nolako jokaera izan zuen aztertzea da, aurreko eginkizunak aztertuz.

1. Emakumeen Historia espainiar historiografian eta Erdi Aroan:

Korrante historiografikoak eta haien bultzada bai nazioartean eta Espainian aztertzea ezinbestekoa iruditzen zait. Horretarako, Cristina Segura Graiño bezalako emakume historialariek egindako lanetan oinarrituko naiz batik bat. Ikerketaren bidez, Erdi Aroko emakumeen ekarpenak zein izan ziren jakitera hel gaitzke, eta iraganeko gizartearen ikuspegi orokorragoa lortu. Laburbilduz, “Emakumeen historia” proposatzen duen Erdi Aroko gizartearen irudira hurbiltzen saiatuko gara, eta horretarako historiografian nola lantzen den aztertuko dut. Erdi Aroko lehen mendeetarako, emakumeei buruzko ikerketak ez dira hain ugariak; Behe Erdi Aroan, ordea, ekoizpena askoz ere ugariagoa da. Aipatu beharra dago, Maria de Mendoza-ren jaurgoiari buruzko lan berria, hots, Arabako Hurtado de Mendozari buruzko azterlana, emakumeen historiaren barruan sartzen dena (Del Val, 2021:46-47). Hurbilketa horietan, eskuragarri dauden iturrien eta bibliografiaren irakurketa egiten da, emakumeen presentzia eta ekarpena bilatuz. Era berean, iragana emakumeen ikuspegitik begiratzen du, beste begirada batzuetarako ezkutuko alderdi berriak azaleratuz. Oro har, emakume garrantzitsuei buruzko lanak izaten dira, jokatu zuten rolagatik, iturrietan

arrasto nahikoa utzi baitute. Beste gai batzuk ere jorratu dira metodologia desberdinetatik, eta, beraz, hiri-historiari, erlijiotasunari, monakatoari, familiari, etab. buruzko bibliografia aberatsa dugu, gero ikusiko dugun bezala (Del Val, 2021:21-24).

1.1 Hastapenak:

XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera egin ziren hainbat aurrerapen epistemologiko; garai hartan, emakumeak nahitaezko gai bihurtzen hasi ziren kultura eta aldi askotako historialarientzat, eta Erdi Aroko historialari askok emakumearen azterketa bere lanetan sartu zuten. Prozesu horretan, 1976. urtea mugarri bat izan zen, emakumeak historian izan zuen paperari buruzko lehen lan bateratu bat garatu baitzen. Urte hartan Poitiers-en Erdi Aroko emakumeari buruzko solasaldia egin zen, honako izenburuarekin: “*La femme dans les civilisations des Xe-XIIIe siècles*”. Bertan historialariek parte hartu zuten, hala nola: Robert Fossier, Marie Thérèse D’Alverny, Roger Arnaldez, etab. Lau urte geroago, Régine Pernoud historialariak Erdi Aroko emakumearen bilakaeraren inguruan zuen interesa justifikatu zuen, emakumeek gizarte burgesetan zuten eraginaren beherakadan oinarrituta. Izan ere, emakumeek funtsezko papera jokatu zuten V. eta XIII. mendeetan. Hala frogatuko zuten Gregorio Tourskoak Clotilderi buruz egindako aipamenek, baita Ana erreginari edo haren jaiotzako emakume arruntei buruzko beste erreferentzia ikoniko batzuek ere, hots, Katalina Sienakoa eta Juana de Arco. Une horretatik aurrera, eta 40-50.hamarkadetan zehar, Erdi Aroko emakumeari buruzko ikerketak ugartu ziren (Muñoz Saavedra, 2016:90-91).

1.2 Hispaniar Historiografia

XX. mendeko hirurogeiko hamarkadaren erdialdean, Espainian Emakumeen Historiari buruzko lehen lanak egin ziren, aurretik lan batzuk baino ez baitziren argitaratu, Espainiako Historiari egindako ekarpen gisa. Lehen bultzada Madrilgo Unibertsitate Autonomoan Emakumea Ikertzeko Diziplinarteko Jardunaldiek eman zuten, 1981. urtean (Segura, 2008:250). Gaur egun diziplina finkatua da Erdi Aroko ikerketei dagokionez. Gainera, ez da historialari femeninoen kontua soilik, hasieran izan zen bezala. *Gender History* eta *Women 'Studies*-en eragin argiarekin, *Her-Story*-ren aldaera horrekin Espainian Emakumeen eta genero harremanen Historia bat eraiki da, joera desberdinetara irekia (Muñoz, 2021:327).

1.2.1 Ibilbidea

Azkenik, kontuan hartu behar da ikerketa-proiektuek duten garrantzia, baldin eta ikerketa-proiektu horien argitalpenak, mintegien deialdiak eta solasaldiak emakumeen historiari buruzko ezagutza ekoizteko eta zabaltzeko gune gisa finkatzen badira. 2011n, gai horri buruzko solasaldi eta biltzar espezifikoaren deialdien ziklo bat berraktibatu zen. Gutxira, 2012an, Najeran Nazioarteko IX. Topaketa egin zen, gai monografiko honekin: *Las mujeres en las ciudades europeas de la Edad Media*. 2013ko maiatzean Zaragozan antolatu zen hizketaldi bat: *Mujeres de finales de la Edad Media: actividades políticas, económicas y culturales (Corona de Aragón, ss. XIV-XVI)*. Izaera orokorreko deialdiak izan ziren, eta horien edukiek garatu diren lan-esparruak erakusten dituzte. Gainerako argitalpenetan, berritasuna eta jarraipena konbinatu ziren aurreko ziklo historiografikoekin lotutako gaietan. Garapen indartsuenek lotura dute *agency* zeharkako nozioarekin, eta emakumeengan eta boterearengan jartzen dute arreta. Enuntziatu konplexu horrek aldaera espazial eta, batez ere, kronologiko ugari ditu. Azpimarratzekoa da (*queenship*) berrikuntza historiografikoaren frontierik handienetako bat bihurtu dela. Egun, azterlan ugari erakusten dizkigute erreinu iberiar aberatsetako monarkietako emakumeek erregeorde, erregina jabe, ezkontide edo erregina ama gisa dituzten aukera-eremuak. Hori, laurogeita hamargarren hamarkadako interes historiografikoetan sartzen da, gogora dezagun 1999an egindako AEIHMren VII. Nazioarteko Bilkura. Horren adibide garbia izango litzateke Cristina Segura Grai jaunarena, boterearen auziari buruzkoa: “*Las mujeres y el poder real en Castilla. Finales del siglo XV y principios del XVI*” (Muñoz, 2021:333-336). 2005etik aurrera, koroako erreginen edo emakumeen aldeko ekimena bete-betean instalatu zen penintsulako historiografian. Solasaldiak bat datoz *e-Spania* aldizkari elektronikoen sorrerarekin. *Revue interdisciplinaire d'études hispaniques médiévales et modernes*, Gaiari buruzko hainbat monografikoren harrera egiteko gune editoriala da, eta Georges Martinen beraren liburu baten argitalpena 2011n, gai teknikoaren ezagutzan kontuan hartu beharreko fokua dira. Gaiari buruzko lehen gogoeta, *Mujeres y poderes en la España Medieval* sarreran islatuta geratu zen, erreferente bat da gure historiografian, unibertsitateko argitaletxe batean argitaratu baitzen. 2011n, Maribel del Valek eta Cristina Segura Graik hainbat artikulu bildu zituzten, emakumeak politikan duten garrantziari buruzkoak. Lehen esan dudana bezala, errege familiako emakumeen aldeko ekimena arreta gune indartsu bihurtzen da 2014tik. Urte horretan kongresu bat antolatzen da Santiagoko Unibertsitatean Miguel García Fernández eta Silvia Cernadas Martínez adituekin. Handik gutxira, beste aldizkari batek monografiko bat argitaratu zuen, Penintsulako Behe Erdi Aroan erreginek egindako fundazio mitikoei

buruzkoa. 2018an, *Arenal*¹ aldizkariak, beste monografiko bat argitaratu du, non termino orokorrak, boterea eta memoria aipatzen diren. Laburbilduz, azken hamar urteetan foku tematiko horretan sortutako ekoizpen bibliografiko mordoak dira (Muñoz, 2021:339-344). Hala ere, bere garrantzia eragin txikia izan du unibertsitateko ikasketa-planetan eta, batez ere, ikasgaien edukietan. Helburua da historiako irakasgai guztietan kontuan edukitzea eta gizarte-subjektutzat eta prestakuntza sozial eta politikoen garapenaren eragileztat hartzea (Segura, 2008:252-253).

1.3 Ikerlanaren problematika eta korrante historiografikoak

Emakumeek historian izan duten ekintzaren azterketak hainbat problematikotasun-maila ditu. Lehenengoa iturriak izango litzateke, minimoki agertzen baitira. Bigarrena historialariek lotuta dago, tradizioz ez baitituzte subjektu historiko gisa onartu, eta ez baitiete beren ekintzei baliorik eman. Azkenik, emakumeen jardunbide historikoak identifikatzea eta horiei zentzua ematea ahalbidetuko diguten analisi orokorren eta kategorien esparruen garapen eskasa litzateke. Emakumeen Historiak dagoeneko baditu zenbait bilakaera-lerro, agerian liburuetan, artikuluetan eta hitzaldietan islatu diren idazki berriekin. Ikusezintasuna, marjinazioa eta mendekotasuna aipatzen ziren lehen une haietatik, alde aktiboa eta emakumeen presentzia erakustera pasatu gara. Hala ere, ezin dugu ahaztu Erdi Aroko gizarte patriarkalean garatu zirela. Eboluzionatu egin da, lan historiografiko kolektibo bati esker, errealitate sozialen konplexutasuna erakutsiz (Muñoz, 2021:329-331).

Diskurtso historikoan androzentrismoa ordezkatzeko berrikuntza metodologiko eta teorikoa zekarren. Erabilitako iturrien bariedade tipologikoak eta adiera bakarreko metodoa ez izatea hainbat eredu metodologiko formulatzea ekarri du, batzuetan osagarriak eta aberasgarriak, eta beste batzuetan, ordea, urrun samarrak edo kontrakoak. Hiru metodologia nagusiak laburbilduko ditut. Lehenengoa, Cristina Segura Graíñok eskaini zuen bere garaian, eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Emakumeen Ikasketen Mintegiak 1981ean antolatutako Diziplinarteko Ikerketari buruzko Lehen Jardunaldien esparruan. “*Participación de la mujer en la repoblación de Andalucía (siglos XIII y XV)*” lanaren bidez azaldu zuen. Izan ere, autoreak izenen bilaketan eta bilketan begirune handia jartzen zuen. Cristina Segura, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Erdi Aroko Historiako katedraduna eta AlMudayna

¹ “*Arenal para mí es un espacio de libertad, de sabiduría, de relación, de reflexión y de tolerancia. De libertad pues el requisito necesario es el valor científico de las propuestas y su relación con la Historia de las Mujeres, pero también de tolerancia*” (Segura, 2013:88). Emakumeen Historian diharduten edo interesa duten pertsona guztien arteko komunikazio zientifikoko lotura da.

Kultur Elkartearen sortzailea da. Arrazoi askorengatik, Espainiako emakumeen historiaren erreferente bihurtu da, lanean zehar ikusiko dugun moduan (Segura, 2008: 251-254).

Bigarrenari dagokionez, guztiz kontrakoa da, analisia diskurtsoetan eta irudikapenetan oinarritu duelako. Historiografia frantsesak eragin handia du Espainian, batez ere Georges Duby historialari frantzialdekoen lanagatik. Imajinario eta irudikapen-sistemaz interesatzen da, pentsamoldeen historiaz oso hurbil dagoena. Gehienetan gizonek egindako diskurtsoak dira, garai bakoitzeko iruditeria erreproduzitzen dutenak, ordena patriarkal bat, emakumeari rol jakin bat ematen diona, topikoetara itzuliz. Espainian José Enrique Ruiz-Domènec Erdi Aroko Historiako katedraduna nabarmentzen da, gorteetako emakumearen paperaren irudi ideala eraikiz. Korrante honetan, Valladolideko Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako katedradun María Isabel del Val Valdiviesok Isabel Katolikoa erreginarekin egindako ekoizpen historiografikoa azpimarratu dezakegu (2008:255-259).

Azken urteotan ezartzen ari den hirugarren metodologia 80.hamarkadan sortutako sexu-desberdintasun ideia jarraitzen duena. Estatu Batuetan eta Frantzia sortu zen, Luce Irigaray bezalako egileen eskutik. Autore hauek, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna defendatuko zuen feminismoaren aldeko apustua egin zuten. Espainian, Bartzelonako Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako katedradun María-Milagros Rivera Garretas izan da teoria hori hobekien azaldu duen egilea. Historiografia frantsesak eta *Annales* beren planteamenduetan ezaugarri duen lehen etapa batetik historia egiteko modu berri batera igaro da. Ikerketa-lana emakumeen erlijiotasunean eta espiritualtasunean oinarritu da, non emakumeak Erdi Aroan askatasun maila handiagoa lortu zuen (2008:261-263). Antzeko egoera María del Carmen García Herrero izan daiteke, doktore-tesi goiztiarrarekin: “*La mujer en Zaragoza en el siglo XV: aportación al estudio de la sociedad urbana aragonesa bajomedieval* (1986)” (2008:265).

1.4 “Emakumeak eta boterea” ikerlanak:

Emakumeek boterearekin duten lotura XXI. mendeko lehen urte hauetan bereziki suspertu da. Helburua bizitza politikoko agertoki guztietan emakumeek duten garrantzia erakustea da, salbuespenik gabe. Egia da haien parte-hartzea ezin dela gizonarenarekin parekatu, baina argi dago emakume horien gainean nagusi den isiltasuna ez zela dokumentazioaren ikusgaitasun faltaren ondorio, baizik eta “ikertzailearen itsutasuna” arazoa. Erregetzan bezala, Erdi Aroko gizarteko sektorerik gorenetan, Somorrostroko gure familia

berezian kasu, erresumako bizitza politikoaren baliabideak seme-alabei transmititzeko eta lan egiteko prestatuta zeuden emakumeak ziren. Ama den aldetik, erreginak edo andreak eragin nabarmena du bere seme-alabengan, haurtzarotik laguntzen baitie, eta, ondoren, aholkulari handia eta oinordekoaren interesen aldeztaila izango da (Pelaz eta Del Val, 2015:106-109).

1.4.1 *Queenship*:

XX. mendearen amaieran eta XXI.aren lehenengo urtean kontzeptu berritzaile bat sartu zen, mundu anglosaxoian barneratua. Esparru analitiko berri bat eskaintzen du, Behe Erdi Aroko eta Lehen Aro Modernoko emakumeen boterearen gaietan eta formetan: *Queenship* (Guerrero, 2016:90-91). Honi buruzko azterlan iradokitzaileak ematen jarraitzen duen historialaria Teresa Earenfight edo García Herrero da, eta Gaztelako Mariaz (Aragoiko erreginak) arduratzen da, hots, gehien aztertu den pertsonaietako bat da (Del Val, 2021:27). Nobleen gizarte-estamentuko emakumeei zuzendutako azterketa-inkesta batean sar daitezkeen hainbat alderdi nabarmentzen dira: erreginaren boterearen tipifikazioa, bai alderdi tradizionalenean (ezkontzak, aliantzak, leinua), bai berrienetan (sare klientelarrak, eraginak, *partnership*...), alderdi informaleran daramatenak. Botere formalaren alderdiak, erreginen etxeak eta beren ondasunak kudeatzeko eta administratzeko gaitasunaren azterketa batzen dira. Miguel García Fernández-ek azpimarratzen du emakume aristokratek genero-azterketen puntu bilgarri gisa hartuko direla, Yolanda Guerreroren planteamenduari jarraituz, hausnarketa bat egitera gonbidatzen du, *ladyship*-ari *queenship*-aren antzeko esanahia emateko. Hortaz, funtsezkoa izango litzateke emakumeek erregeen edo erakundeen aginpidea erabiltzeko modu espezifikorik badagoen erantzun ahal izatea (Muñoz, 2021:348). Boterearen egikaritza ez da soilik modu publikoan gobernuan parte hartzera mugatzen, baizik eta askoz ere ekintza konplexuagoa da. Hau da, gobernu-ekintza desberdinetan eragina izatea, eta besteen lana norberaren osperako erabiltzea (Guerrero, 2016:92).

2. Erdi Aroko emakume nobleak

Testuinguru historiko honetan emakume nobleak familian duen lekua ulertu eta baloratuko da. Ondare, ohore eta prestigioaren arabera ezarritako barne-hierarkia errespetatzen zen. Horretarako Maria del Carmen García Herrero historialariaren lanetan oinarrituko naiz.

2.1 Iturriak:

Emakume arrunten ahotsak bilatzen eta aurkitzen ditugu dokumentazio prozesalean, ekonomikoan edo zibilean, notario-dokumentazioan eta inkisitorialean. Erregistro horiek,

askotan, ahotsik gabeko jendearen lekukotasun biografikoak itzultzen dizkigute. Emakumeen Historiarako iturri zuzenenez gain, gutunak ere jaso dira, aztertu berri direnak. Idazkera pertsonal horrek emakumeen ahots eta ekintzei buruzko lehen eskuko informazioa eskaintzen digu, batez ere erregetzari buruzkoa, baita horiek ordenatu edo idatzi zituzten erlijioso eta dama nobleei buruzkoa ere (Muñoz, 2021:360). Azkenik esatea emakume horien ostilamenduari eta ondasunei buruzko xehetasun batzuk aurki daitezke, testamentuak arretaz berrirakurtzean (García Fernández, 2011:146).

Lehenik eta behin, Erdi Aroko iturri idatziak aztertu behar ditugu. Testamentua testigantza garrantzitsuenetako bat da: “*es una fuente idónea, ya que en dicho documento se plasman las últimas voluntades de la reina, así como la imagen que de sí misma quería preservar para la posteridad*” (Pagés, 2017:51). Emakume noble horien azken borondateen bidez, gure kasuan, noblezia-estamentuko dama horien lotura pertsonala ikus dezakegu; gainera, bere neskame eta morroiekin zituzten harreman pertsonalak zeinak emakumeen arteko leialtasuna islatzen duten. Ondasunen inbentarioa ere azterketa honetan sartzen dugu, testamentuarekin oso lotura estua duelako. Normalean, inbentarioa pertsona hil aurretik egiten zen, beste bat eginez heriotza gauzatzekoan. Horrela, hildakoaren ondasun material guztien zerrenda zehatza izan zitekeen, haren azken nahiaren arabera banatzeko (Barco, 2018:127-128). Ondare ekonomikoari buruzko datuak sartu dira, hala nola, ezkonsaria eta familiek egindako ezkontza-horni buruzkoak, haien autonomia islatzen digutenak. Gainera, hainbat obra ditugu², gutun eta bestelakoak mezenasgo erlijiosoan duten ezinbesteko papera ematen digute, dohaintzekin eta arbitrajea eskatzen zuten gaietan egindako bitartekaritzarekin irudikatuta. Azpimarratu nahi nuke literatura-lanak ere bultzatu zituztela, non erregina jarraitu beharreko eredu gisa aurkeztzen zen. Zenbait erreginek idazkera sakratuak ere aztertu zituzten, eta diskurtso-gaitasuna eta bizitzako hainbat alderdiri buruzko planteamendu pertsonalak lortu zituzten (Pelaz, 2014:347-351). Leonor López Cordobakoa, adibidez, espainiar jatorriko lehendabiziko emakume idazlea izan zen eta bere *Memorias*³ (1412) Penintsulako genero autobiografiko goiztiarrenetako bat da (González de Fauve eta Forteza, 1996:17).

²Diego de Valera *tratado en defensa de virtuosas mugeres* lana idatzi zueen zeinetan Gaztelako Mariaren aportasioak islatzen dira bere esperientzia eta inspirazioaz bultzaturik (Pelaz, 2014:337).

³Bere kontakizunaren helburua galdutako prestigioa, boterea eta fortuna berreskuratzea da. Horretarako, bere idazkian leinua eta ahaidetasuna erabiliko ditu botere-harremanen giltzarri gisa. Testu honen beste ezaugarrietako bat Leonorrek bere buruari egozten dion eta bere azken helbururako balio duela uste dugun erlijiotasun gehiegizkoa da. Horrela, bere bizitza egituratzen du eta lortutako lorpenak justifikatzen ditu (1996:20-21). Gainera, aparteko maniobra-gaitasuna izanik, Katalina erreginaren zerbitzura jartzea lortuko du, eta, ondasun higiezin eta zilarrezko piezen ondarearekin aberastuko da. Horrek aukera emango dio egoera ekonomikorik gabe Kordoban erretiratuta bizitzeko (1996:25).

2.2 Erdi Aroko bizitza:

Erdi Aroko emakumeen bizitza, familiaren beharrei lotuta zegoen, etxearen hornidura haien lanaren arabera baitzen. Eguneroko bizitzan banaketa handia zegoen: arlo publikoa gizonentzat eta etxekoa (pribatua) emakumeentzat. *Domus*, latinez, patriarkatuak emakumeei ematen dien espazioa zen. Hauek etxean egon behar ziren, seme-alabak heziz eta familia zaintzen, lan moduan definitu gabe, nahiz eta funtsezkoa izan. Publikoa, ordea, garrantzitsutzat jotzen zen guztia sortzen zen lekua izan zen. Familia baten aberastasuna horretan oinarritzen zen, hots, senarraren negozioen mende. Bestea, betebeharrak moduan ulertzen zen, ez lan moduan. Emakumeen gizarte-errealitatea ezagutzeko hainbat iturrien bidez azter daiteke; izan ere, ohikoa zen emakumeak herentziak edo dohainak jasotzen, negozioetan bere parte eskatzen, gauzatzen, eskubideak eskatzen edo abusuak salatzen agertzea. Nobleziako damak benetako «etxea» osatzen duten morroi, eta ofizial talde batez inguratzen direla frogatzen dute (Segura, 2016:85-101).

2.2.1 Erljioa:

Berriki argitaratu diren lanen artean, 2017an Santa Maria Fundazioko liburu kolektiboa dago: *Mujeres en silencio: el monacato femenino en la España Medieval*, multidisziplinaria dena (Del Val, 2021:33). Eliza-erakundeei, monasterio edo ordena erlijiosoei laguntzea da erregina-patronatuak Erdi Aro osoan hartzen duen alderdietako bat, eta, horrela, bere agintea eta boterea adieraztea eta finkatzea bilatu zuten. Erdi Aroaren amaieran eta XV. mendearen hasieran idatzitako bi lanetan agertzen diren irudi bibliko femeninoei erreparatzen badiegu, genero femenino idealaren bertute eta eredu horiek islatuta ikusiko ditugu. Rebeca, adibidez, bere edertasun eta kastitate bikainagatik nabarmendu zena, Jainkoak seme bat emanez konpentsatu zuena, antzua bazen ere. Emakume indartsuak dira, balentria bereziak egiteko gai direnak, goraiatuak, baldin eta ekintzak bere herriaren, senarraren edo erregearen mesedetan egiten badira. Horien bidez, gizarte patriarkalak emakumeengan antzematen dituen balioak konfiguratzeari gain, bertute-eredu batzuk ere eskaintzen dira, bere izaeraren berezko akatsak zuzen ditzaten. Ez dezagun ahaztu garai hartan medikuntzaren zientziak, lau umoreen teoriarik oinarrituta, emakumeei adimen eta alde aurreko jarrera txikiagoa ematen zuela, XIV. mende hasierako *Secreta Mulierum* latindar opuskuluak ondo adierazten duen bezala. Laburbilduz, *exempla* hauen bitartez idazleek emakume arketipoa sendotzen dute (González-Doreste, 2019:59).

Garai hartan, erlijioa eta politikoa ez ziren bereizten, eta kristautasuna bizitzako alderdi guztietan zegoen. Erreginak figura ona ziren fede hori bultzatzeko eta erlijio-erakundeak mantentzeko. Horrela, gizartearen errekonozimenduaz gain, ehorzketarako eta otoitzetarako leku sakratua lortuko zuten, salbatzeko ezinbestekotzat jotzen dena. Elisenda de Moncadarren hilobia, adibidez, Pedralbesko monasterioko erregina eta moja gisa irudikatuta dago (García Herrero, 2015:341-350). Isabel Portugalgoa erregina santuen taldekoa izatera iritsi zen. Beraz, Antzinarotik, erlijioak galdera gehienei erantzuten zuen. Heleniar erreginek *evergesia* erabili zuten boterearen sinbolo gisa. Dohaintza erlijiosoa errukiaren adierazpena zen, boterearen eta handitasunaren adierazpena izateaz gain (Mirón, 2012:252). Ondorioz, emakumea erlijioarekin lotzeak boterea esan nahi du, igoera sozialerako mekanismo gisa.

2.3 Emakume nobleen boterea:

Emakume nobleen testamentuetan jasotako hainbat alderdik agerian uzten dute ezkontza-estrategietan duten protagonismoa. Baina, ezkontza-itunen balioa, esanahia eta emakumeek Gaztelako Behe Erdi Aroko leinu-estrategiei ematen dieten harreman-balioa neurtzeko tresna bikainenetarikoa doteak dira. Egile guztiak bat datoz esatean XIII.mendearen erdialdetik aurrera ezkonsaria legearen ordezkari bihurtzen hasi zela, eta alabek uko egiten ziotela, oinordetza-eskubideen aurrerapen gisa. Une horretatik aurrera, garrantzi handiagoa hartzen hasi zen, behe Erdi Aroan zenbat eta gutxiago iraun zuten arren. XIII. mendean, ezkonsaria eta ezkontza-horniak nobleziako emakumeen ondasun pribatiboen % 50 inguru ziren, eta XV. eta XVI. mendeetan, berriz, dotea % 80 da. Autore batzuek zifrak eman dituzte: Gaztelako nobleziaren batez besteko dohainak milioi 1-2 milioi inguru ziren 1470era arte, aurrerantzean, berriz, 4, 6 eta 8 milioi. Gorakadak arazo larriak sortzen zituen testamentuetan, eta kasu askotan jaraunsleak justiziara jotzera behartzen zituen, baita ordainketak zatikatzera ere (Guerrero, 2016:100).

2.3.1 Ondare kudeaketa eta administrazio femeninoa:

Nobleek, senarra kanpoan zegoenean, menpeko ondarearen agintaririk handiena osatzen zuten. Bestetik, haien jaurgoen, ondasunen eta errenten kudeaketa egin zuten, ingurukoek haien agintea zalantzan jarri gabe. Administrazio-gaitasun horren erdigunean, «Etxea» adierazgarriena da. Emakumeek behin ezkondu, etxe bat jasoko dute haien ondasunen baitan, gizonak ez bezala eta horrela, haien zerbitzura neskameak izango zituzten.

Baieztatu dezakegu etxeak autonomia ematen ziela, senarrarengandik bereizitako bizitza bermatu eta inguruko beste leinu boteretsuekin harremanak izateko aukera emanaz (Guerrero, 2016:104-107). Hala eta guztiz ere, Behe Erdi Aroan, hainbat lege-neurri egon ziren eremu juridikoan emakumeen jarduna mugatzen zutenak, baina interesatzen zaizkigu subjektu aktibo bihurtzen dituztenak. Enkarterrietako Foru Erreformatuan, Emakumeei beren senarreatatik eta seme-alabengatik fidantzak ematen uzten zitzaizkien: “*qualquier home o muger abonada en la tierra de las Encartaciones que si quisiere salvar rebeldia por alguno ante el alcalde que haga avcion obligandose de pagar lo juzgado por aquel por quien hizo cavcion...*” (Castrillo, 2020:102). Emakume ezkonduak kontratu mota desberdinak egin zitzaizkien, ezkontzeko lizentzia izanez gero. Baina garrantzitsua da iturriek islatzen dutela, eguneroko testuinguruan, lizentzia alde batera utzita jarduteko gaitasuna zeukaten. 1486ko Lekeitioko udal-ordenantzetan, emakumeek etxeak eta baratzeak alokatzen zituztela ondorioztatzen da, ahozko kontratuak ezarriz (Castrillo, 2020:106). Ondorioz, hainbat gaitasun zituzten kontratuak egiteko, beti ere: egoera zibila, familian zuten posizioa, ondarearen jabe izatea, etab. arabera.

2.3.2 Guda, bitartekaritza eta diplomazia:

Erdi Aroko emakumeek bere garaiko gerretan eta bakearen lorpenean izan zuten garrantzia aztertuko dut labur-labur. Tradizio klasikoan askotan agertzen da, eta Bibliako emakume indartsuetan ere, garaiko pentsamoldeetan iraun zuena (Nash eta Tavera, 2003:73-74). Hala ere, bakearen bidea hobetsi zuten. Adibide argia Gaztelako ondorengotza-gerra izango litzateke, Alonso de Palenciaren *Crónica de Enrique IV* delakoaren bidez. Bertan, emakumeek gatazkan nola parte hartzen duten hautematen da: Isabel Katolikoa erregina edo Leonor Pimental Plasenciako kondesa bezalako paper aktiboarekin⁴ (2003:96). Francisco de Mendiak, XVI. mendeko iturri berantiar batek dio, ezkontzak barne-tentsioak baretzeko baliabideak ere izan ziren. 1443an, Gómez González de Butrón bandokideak, kontrako alderdiarekinaliatu zelako Urquizuren etxeari mendekua hartzeko irrikaz, Zamudioko Antso Ortiz bahitu zuen, haren alaba sasikume batekin ezkonduz (Castrillo, 2020:30). Harotarren familiako alabak erreinuan politikoki medratzeko erabili izana beste adibide argi bat da, 1287an Maria Diaz de Haro Don Juan infantearekin ezkondu

⁴ Palenciaren esanetaz, Leonor Portugalen aldeko militantea izan zen, errege portugaldarra Arealora joaten jarraitu baitzuen, eta, han, desadostasunak sortu ziren bien artean, bera Burgosko gotorlekuari laguntzearen aldekoa baitzen. Galtzen dutenean, isilpeko mandatariak bidaltzen ditu Isabel erreginari barkamena eskatzeko (Nash eta Tavera, 2003:101). Hala ere, gertakari hauek askotan emakumeen irudiari eragin zien. Horrela, hiri baten edo bere interes familiarren defentsa gidatu zuten nobleei, hala nola Aldonza de Castilla, Leonor Pimentel edo María de Silva, ezaugarri negatiboak eman zitzaizkien, hala nola ankerkeria, maltzurkeria, gaiztakeria edo sorgin, musulman eta juduekiko tratua (Castrillo, 2021:337).

zutenean bezala, errege-etxearekin harreman politikoak estutzeko (Bazán, 2019). Eguneroko bizitzan, baketzaile gisa ere jokatu zuten. XV. mendeko obra anonimoan ikus daitekeenez: “*Castigos y doctrinas que un sabio daba a sus hijas*”, aita batek bere alabei onak, zuhurak eta esanekoak izatea gomendatzen zien. Honek tentsiorik eta indarkeriarik gabeko etxe batera iristeko jarraitu beharreko bidea erakusten zien: lehenik eta behin, senarrak zerbitzatuz eta ohoratuz; bigarrenik, neurritasuna erakutsiz; eta hirugarrenik, gizonak lasaitzen eta geldiarazten. Azken batean, bake-kulturaren berezko adierazpenak ziren, eta emakumeengan presente egon behar zuten (Bazán, 2019).

2.3.2.1 Maria Sarmiento:

Maria Sarmiento goi mailako gizartean leinuak funtsezkoak ziren garaian bizi izan zen. Leinu ezberdinen nortasuna adierazten zuten oinarrizko elementuak, alde batetik, dorretxea, familiaren egoitza, errota, eliza... ziren, eta bestetik, jatorri eta arbaso komun baten kontzientzia, identitate-zeinua. García de Sarmiento Sobrosoko jaunaren eta Salvatierra de Miñoko jaunaren alaba, García López de Ayalarekin ezkondu zen 1457 inguruan (Paz, 2019:316-319). Alargun geratu ondoren, familiaren arteko liskar handia hasi zen. Berriz ere, testamentuak oinordekotza-sistemak eragindako gatazkak dakartza familien artean. Behe Erdi Aroan, maiorazkoa ondare-fenomenotzat hartzen da, eta haren funtsezko izaera leinuen ondasunen babesak eta arbasoen kontzientziak ematen dute; beraz, herentzia materialaren transmisioarekin, leinuaren memoria ere komunikatzen da. Horrela, ikus dezakegu bigarren seme-alabak eta baita emazteak ere bigarren mailan geratzen direla. Oraingo honetan, Mariak, maiorazkoaren oinordeko Pedro de Ayala semearekin liskarrean amaitzen den dokumentua faltsutzen du. Ahal izan zuen guztietan, alabak babestu zituen, eta urte batzuk geroago, bere alaba Mariak oinordeko unibertsal eta albazea izendatu zuen. Deigarria da senarrari jarauntsia kentzen diola, beste behin ere genero femeninoak izan zuen garrantzia agertuz, eta datu horiek ez dizkigute eman nahi izan. Laburbilduz, emakume honek Morillas eta Kuartango bezalako herriaren baten gaineko jurisdikzioa lortu zuen, eta horrela, posizio eta ospe ona mantendu zuen. Familiaren buru bihurtu zen, eta horri etekina ateratzen jakin zuen. Azkenean, Errege-erregina Katolikoek ere hainbesteko eragina izan zuten haren defentsan (Paz, 2019:315-334). Maria Sarmientok bere kabuz nahi zuena lortu zuen, gizonik gabe, nahiz eta ezkontzak bere posizioa eman. Aiaratarren leinuan, beste emakume asko, hala nola, Mencia de Ayala, María de Mendoza eta Leonor Guzman, bere leinuaren legitimazio politikoan nabarmendu ziren.

3. Zer suposatzen zuen Euskal Herriko Erdi Aroan emakume noble bat izateak?

Irakurleak, aurreko orrialdeetan zehar, García Salazar y Butrón familiaren bilakaerara hurbiltzeko aukera izan du. Bigarren atala eredu gisa, hemen Euskal Herrian zentratuko naiz. Janire Castrillo eta Agurtzaneren publikazioak jarraituz, Juana de Butrón-en esperientzia euskal testuinguruan begiratuko da. Honekin, euskal emakume nobleen ezaugarriak eta botere gaitasuna aztertzea izango da helburu nagusienetarikoa, egun “erreginaltasun” deritzogun kontzeptua Ahaide Nagusiekin batera lurra menperatzen zuten emakumeekin landuz.

Bizkaian, agintea jaun edo andreek bere eskuetan zeukaten, Gaztelan errege-erreginak bezala baina kasu honetan, jaurerri testuinguru batean. Haien eginkizunen artean azpimarra dezakegu: justizia banatu epaile nagusi gisa, ofizialak izendatu, hiribilduak sortu eta bestelako lege, foru eta kapitulu bildumak eman, babes militarra, errentak jaso, etab (Agirre García, 2019:42). Andreei dagokionez, ikusiko dugu nola eginkizun horien partaide eta funtzio aktiboaren lekukotasunak daudela gure lurraldean.

3.1 Morala:

Tamalez, irudi eta diskurtso bat sortu da, non emakumeak menpekoak diren, nahiz eta alderdi batzuetan oso ahaltuak izan. Emakumeen mendekotasunaren benetako oinarria hiru iturriren bidez argudiatu zen: Erdi Aroan berreskuratzen den erromatar zuzenbidea, hau da, tutoretza behar duten izakitzat hartzen dituen, bigarrenik biologia aristotelikoa: gizon eskasa edo ondo egina ez, eta, azkenik, argudio biblikoak (Castrillo, 2021). Janire Castrillok euskal iturriak aztertu ditu: lurralde foruetatik erreskatatutako testigantzak eta hainbat hiribildutako udal ordenantzak, udal artxiboetan gordetako notario-agiriak -testamentuak-, Kantzelaritzan egindako epaiketak eta eskualdeko kroniketako hainbat pasarte. Bai liburuan, bai hainbat artikulutan, Behe Erdi Aroko gizarteak emakumeentzat eraikitako jarduera-kode idealaren ezaugarriak erakusten dituzten adibideak jartzen ditu, bai eta emakumeen identitatearen garapenean estimatu ziren jokabide motak ere (Castrillo, 2019:3).

Emakume zintzoen eginbeharrrik garrantzitsuenetako bat sexu-jokabide ordenatua izatea zen, desiratik eta lizunkeriatik urrun. *Las Bienandanzas e fortunas* kronikan, Álvaro Díaz de Ocak, bere semeetako batek XI. mendeko gudu batean erakutsitako ausardiaz harro, hauxe oihukatu zuen: “*agora sé yo que mi muger era buena, que aquel su fijo de mi rodilla salió*”, aitatasunaren ziurtasuna emaztearen ontasunarekin lotuz. Kastitatearen idealak alargunei ere eragin zien, hobe baitzen bigarren aldiz ez ezkontzea. Gizon askok bere

testamentuetan berariazko eskaerak egin zituzten beren emazteak hil ondoren alargun gera zitezten, zenbait pribilegio galtzeko arriskuarekin berriro ezkonduz gero (Castrillo, 2019:4-6).

Emakume onaren ereduak beste funtsezko betekizun bat proposatzen zuen: deboziozkoa eta errukior izatea. Pertsona pobreei laguntzeko, ospitaleak eta komentuak finantzatu edo konpontzeko, eliza edo tenpluen luxua areagotzeko karitatezko ekintzak gizon eta emakumeen testamentu gehienetan agertzen ziren. Egilearen aburuz, dohaintza horiek Azken Judizioan onik ateratzeko baliabideetako bat ziren, Lekeitioko Santa Maria parrokia-elizako kontu-liburuek islatzen duten bezala.

Erdi Aroko iturrietan erraza da ikustea neurritasuna, obedientzia eta moderazioa emakume onen oinarritzko nolakotasunak direla. Izan ere, emakumeen zalapartak gaitzespen sozial handia sortzen zuen, eta zintzotasunaren mugak hausten ausartzen zirenei egotzitako sinesmen eza argi eta garbi egiaztatzen da «profazadas» irudian (2019:12). Itxurak gordetzea gai garrantzitsua izan zen Erdi Aroko gizarteetan, noblezia idealera bideratuta zeudenak, eta ohorearen sinbolismoak komunitate-bizitzako espazioak irradiatzen zituenak (2019:17).

3.2 Erlijioa

Emakume onaren beste ezaugarri bat debozioa eta karitatea da. Emakumeak Elizara joaten dira, eta akusatuek direnean, Elizara joateko argudioa erabiltzen dute onak direla frogatzeko. Erakunde seroralak ospea eta miresmena izan zituen. Eginkizun bikoitza izan zuen emakumeentzat, lehenik eta behin benetako erlijio-bokazioak bideratu baitzituen, eta, aldi berean, emakumeek bizimodua ateratzeko eta ekonomikoki bere kabuz moldatzeko modu bat zen. Normalean ez ziren kultura handiko emakumeak, eta, beraz, ez zaigu idatzirik edo memoriarik iritsi; udal-izendapen batzuk, parrokia-liburuetako ohar marjinalak, testamentuak eta abar esaten diegu. Baina iturri nagusia lege-auzietan egon beharko litzateke. Emakume horiek eskandalu edo loturarik eza eragin izan balute jokabide txarragatik, testigantzak izango genituzke baina errealitatea bestelakoa da (Arana, 1992:104).

3.3 Ezkontza:

Ezkontza hitza latinetik dator *matris* eta *munium* amaren betebeharra, zeregina edo ofizioa esan nahi du. “*Siete Partidas*” testu alfonsinoan aurkituko dugu zergatik deitzen zaion horrela bien batasunean oinarritutako erakunde hori, emakumeari gailentasuna emanaz. “Patrimonio” izena ez zaio ematen emakumeak haurdunaldian zehar jasaten dituen esfortzu

handiagoengatik, erditzearen minagatik, hazkuntzaren kargagatik eta amaren semeak duen beharragatik, eta ez aitarena txikiak direnean (Gàmez Montalvo, 1998:37). Gainera, ezkontza ez da gauzarik garrantzitsuena, ezkongaiak baizik. Bizkaian ezin ditugu erritu horiek zehaztasunez berreraiki, baina Gaztelan bezala gertatu zirela uste da (Dacosta, 2004:203). Ezkontza, aitaren erabakiz egina, andregaiak iritzirik eman ezin zezakeen. *El Cantar de Olaso*, Esteban de Garibay kronikagileak XVI. mendean bildua, ezkontzaren eraginari buruzko salbuespen hori ikusten dugu. Olerkiak Juana de Butrón andreak (beste bat) amari, Elvira de Leiba andreaki, Martin Ruiz de Olasorekin ezarritako senar-emazteen kontratua gauzatzeko egin zizkion presioak zehazten zituen: “*estubo en ello tan constante la hija que no pudo excusar*”, 1450.an ezkonduz (Castrillo, 2020:32).

Oro har, ezkontzari buruzko arau juridiko eta kanonikoen azterlanak oso ugariak dira. X-XVI. mendeetan, ezkontzako eliza-legeria eratu zen, hainbat mendetan indarrean egon dena Eliza Katolikoan, oraindik ere. Garrantzi berezia hartu zuen ezkonsaria edo ondasun-multzoa. Legeria sekularrak bakarrik arautzen zuen gai hori, eta arazoak eragin zizkien gazte askori (pobreziaren dela eta), hortaz, askok prostituziora jotzera behartuta ikusi ziren (Aznar Gil, 1989:42). Hala ere, emakumearen ondasunen jabetza Behe Erdi Aroko ordenamenduak babesten du, senarrari jabetza hori saltzea eta besterentzea debekatzen zuelako. Emakumeak ondarearen transmisioa lehen etapa batean lortzen duen bitartean, gizonek gurasoak hil arte itxaron beharko dute; beraz, dotea funtsezkoa da (Aznar Gil, 1989:84-79). Amaitzeko, birjintasunaren frogari zegoen (“*por escossa*”), erritual konplexua. Honen aburuz, emazteaz arduratzen ziren hiruzpalau emakumek etxera eramaten zuten, bainatu, eskularruak jarri eta eskumuturrak lotzen zizkieten. Hori egin ondoren, ilea garbitzen zioten, odola atera zezakeen orratzik ez zeramala ziurtatzeko. Orduan, senarra ekarri eta “*le hacían echar con eylla*”. Sexu harremanak izan ostean, ohea aztertzen zen: odol seinalerik aurkituz gero, ezkontza izaten zen: bestela, emakumea oinordetzarik gabe geratzen zen (Díez de Salazar, 1990:105).

3.3.1 Adingabeak:

Euskal ezkontzen gaiari heldu aurretik, adingabeen egoera aztertu behar dugu. Euskal Herriko iturri legegileek gurasoek seme-alabengan zuten autoritatea islatzen dute. 1452ko Bizkaiko Foru Zaharrean, adibidez, Gurasoek ezkontzan bere seme-alabei egindako dohaintzak itzultzeko aukera aurreikusten zuen, haienganako esker txarreko jarrera erakusten bazuten. Erromatar Zuzenbideak 25 urteko adin txikitasuna ezarri zuen, Gaztelan XIII.

mendearen erdialdean Partidetan sartu zen irizpidea. Hala ere, Euskal Herrian ez zen aipamen askorik egin. 1373ko Aiarako Forua eta Bizkaiko Foru Zaharra, gai horri gehien heldu zioten corpusak ziren, eta arau orokorreari jarraituz, 25 urtera arte gurasoen edo tutore baten irizpenen pean egon behar zuten. Ezkontzeko adinari dagokionez, pixka bat aldatzen da: batzuek 18 urterekin zehazten dute, beste batzuek 14 eta 21 urte bitartekoekin. Ezkondu ondoren, gurasoen ahaletik askatzen ziren, nahiz eta haien emantzipazioa ez zen osoa adin-nagusitasuna bete arte, eta kuradore batek ordezkatzeko zituen epaiketa edo kontratueta (Castrillo, 2020:24-28).

3.3.2 Senar-emazteak banantzea:

Banantze adostuak arazorik gabe onartzen baziren ere, Zuzenbide kanonikoak ezkontza deuseztatu zezaketen eragozpen batzuk ezarri zituen. Horietako bat ezkontideen artean odol-ahaidetasunezko loturak egotea izan zen, eta beste bat 1544an Magdalena de Vidania eta San Juan de Vicuñaren kasua izan zen, Segurako bizilagunak, zeinetan auzi batean erakusten baita ezkontideen baten inpotentzia zela eta atzera bota zitekeela. Hala ere, berriro diot, urriak ziren eta euskal iturri legegileek irmoki adierazten zuten senarrak emaztearekiko zuen nagusitasuna. Esate baterako, *Fuero Viejo de Bizkaia*-an ezarri zen: “*ellas non pueden salir ha el demandado de su marido*” eta 118. artikulua emakumeek betebeharrak hartzeko orduan zuten ezkontza-lizentziaren beharraz ari zen (2020:53-54). Tratu txarrak izan ziren, halaber, eliza-azuzitegiek ezkontza-banantzeak erabakitzeke arrazoietako bat, baina ez deuseztatzeak, ez dibortzioak. Ana de Vicuñak bere senar Nikolas Elolakoa salatu zuen 1553an Iruñeko apezpikuaren aurrean, honako arrazoi hauengatik: “*la hace muchos y muy malos tratamientos, deiendola palabras muy feas e injurias, (...) y la ha erido y maltratado muchas y diversas veces*”. Komentu batean bizitzeko eskatu zuen (Castrillo, 2020:56).

3.4 Emakumeen herentzia:

Euskal Herrian oinordetza-sistema ez zen homogenea izan, eta Bizkaiari dagokionez, sistema hori foru-arauetan jasota geratu zen. Aldaketa handia maiorazkoa nagusitu zenean gertatu zen, dena anaiarengan eta zaharrenarengan geratuz. Maiorazkoaren helburua zen leinua kontserbatzea eta ez sakabanatzea, eta zituen irizpideei jarraiki, genero-desberdintasun eta emakumearekiko diskriminazio handia eragiten zuen. Emakumea oinordekoa izanez gero, azkenean arazo bera izaten zuen, senarrak hartzen baitzuen etxeke buruzagitza. Horrek guztiak gero eta indar handiagoa hartuko zuen XV. mendean, Salazar familiarekin ikusi dugun bezala (Castrillo, 2020:35). Hala ere, adibide batzuk ditugu, hala nola Gonzalo Gómez

de Butrón eta Elvira Sánchez de Zamudio, Butroitarren leinuko ahaide nagusiak, 1401ean banaketa hori egin zutenak beren bi seme-alaben artean: María Estíbalizentzat: “*como toma el vasco de Portugalete fasta la ciudad de Burgos*” eta Gonzalo Gomezentzat, bestetik, “*el Butron y en Vizcaia*” zeukatena. Horrek erakusten digu inolako asmorik gabeko eta berdintasunezko banaketa zela. Beste kasu bat Mendozatarrena izango zen, Enrike II.ak 1366an emana, familiaren ondasunak emakume batenak izatea eragozten saiatzen zena, eta hori, seme zaharrena hil zela, ez zegoen ez seme-alabarik, ez bilobarik, ez ilobengana iritsi zen oinordekoaren anai-arrebarik. Alabek maiorazkora jo zezaketen horiek guztiak hilez bakarrik, eta hori ez zen oso gertagarria, gainera, hurrengo belaunaldiko seme zaharrenari pasatu behar baitzitzaion. Emakumearen ildoaren bidez eskualdatuko zelakoan, oinordekoaren senarrak fundatzailearen abizenak eta armak hartzeko betebeharra ezarri zen, leinuaren memoria iraunarazteko (Castrillo, 2020:38).

Euskal lurraldearen zati handi batean, ezkontzak irabazpidezko erregimenari atxiki zitzaizkion, Gaztelan ohikoa zena. Hori baterako ustiapenean oinarritzen zen, nahiz eta haien ondareak ez ziren inoiz bat egiten. Bizkaiko araudia bi senarren ogasuna masa bakar batean batzen zen sozietate baten sorreran oinarritzen zen. Hala eta guztiz ere, alde bakoitzak egindako ekarpenak gordetzen ziren, legezko ondorengoengana pasatzean bakarrik behin betiko batzen zirenak. Aitzakia zen senarrak dotean esku hartzeko, hala nola, bere ondasunen gainean hipoteka gisa erabiltzeko. Emakumeak, ordea, ezin zuen gauza bera egin, ekintza garrantzitsuak senarraren baimena behar zutelako. Bizkaiko Jaurerriko araudiek beste sistema bat aurreikusten zuten, biak masa bakar batean oinarritzen baitziren eta zati berdinetan baitzeuzkaten. Hala ere, genero-desberdintasuna zegoen oraindik, emakumeak ez zuelako bere ondasunak erabiltzeko askatasunik senarraren baimenik gabe. Deigarria egiten zait emakumeak eskubidea zuela doteari buruz egindako itsas gestioen aurka judizialki jokatzeko, baldin eta baimendu ez bazituen, hala nola Catalina López de Teza, 1519an, Urduñako herrian. Emakumeek auzitegiara jo zuten bere dohainen babesa eskatzeko, eta nahi zutena lortu zuten senarrak ondasun komunen gainean bakarka hartutako betebeharrak zirenean (Castrillo, 2020:62-69). Gainera, ia legezko corpus guztiek aukera ematen zieten emakumeei modu autonomo eta askean notario-eskritura mota bat egilesteko: testamentua. Emakumeek notario-eskrituretan duten parte-hartzearen analisiak agerian uzten du 1501-1521 bitarteko 301 eskrituretatik %17 emakumeek bakarka egin zutela, gutxi gorabehera. Hau da, salerosketetan eta dohaintzetan antzekoa izan zen bi sexuen parte-hartzea, baina gizonezkoen munduari lotuta zeuden negozioei (maileguak eta ordainketa-gutunak) dagokienez,

testigantza urriak ditugu (Castrillo, 2020:103-104). Bizkaiko foru-legerian ondare-eskualdaketen arazo guztiak eta horien alderdi formalak aztertzen ziren. Testamentuek, adibidez, herrialdeko berezitasun sozial eta geografikoak edo lekukoen eta buruen betekizunak betetzen dituzte. Tronkalekotasun-eskubideak ere arautzen dira, batez ere salmentetan eta irabazpidezko salmentetan atzera eskuratzeko eskubidea. Horri buruzko auziak arruntak dira, baina are arruntagoak dira jaraunspen legitimoagatik auzipetzen dutenak (Dacosta, 2004:192).

3.4.1 Maiorazkoa Bizkaian:

Esan dezakegu XV. mendean Bizkaian jabetzari lotutako transmisio-sistemak zeudela, maiorazkora asko hurbiltzen zirenak eta termino hori ere erabiltzen zutenak. Hala ere, erregeren besterenezintasuna eta lizentzia oraindik ez ziren oinordetza-ohituraren parte. Butroitarren kasua oso interesgarria da, maiorazkoaren aurreko eboluzio-egoera islatzen delako, bai eta XV. mendearen hasieran leinargien artean hedatuen zegoen transmisio-sistema ere. Tororen legetan onartutako erakundeari esker, eratutako maiorazkoa berrikusteko aukera sartu da. Dacostak dio Salazarren kasua dela gatazkatsuen eta ondoen dokumentatu eta aztertuen dela. Egia esan, familia arteko bost gatazka dira, maiorazkoaren kontrolagatik sortuak, 1451.an fundazio berarekin, eta 1522.an iraungo dute. Leinu bereko hainbat belaunaldik, itxuraz, oinordetza-ordenaren beste kontzeptzio baten ondorioz egiten diote aurre elkarri (Dacosta, 2004:200-201).

3.5 Erreginaltasuna:

Euskal Herrian ere hainbat lekukotza aurkitzen ditugu, Behe Erdi Aroan gerra eta gatazken alorrean dama nobleek eta emakume arruntek egindako esku-hartzeen aniztasunaren adierazgarri. Gatazka-giro horretan, emakumeek berariaz esku hartu zuten. Gehienak euskal probintzietan aldarrikatutako Ermandadeari buruzko Ordenantzetatik datoz, bai eta hainbat udal-artxibotako dokumentaziotik ere. *Las Bienandanzas e fortunas* kronikan bildutakoa ahaztu gabe (Castrillo, 2021:338). Alderdi komun bat argi dago: danak gertutik bizi izan zutela indarkeria. Zenbait adibidek erakusten dute emakume batzuek defentsa-arloan aktiboki parte hartu zutela. Kasu gehienetan, leinuko tropak mobilizatzeko erantzukizuna bere gain hartu zuten, eta batzuetan haien presentzia gudu-zelaitik gertu erregistratu zen. Sarreran aipatutako kasua, hau da, Juana González de Agüero, argi usten dute. 1411n, egoera errepikatu egin zen leinu bereko beste emakume batekin: María Alfonsa de Múgica andrearekin, Gonzalo Gómez de Butrónen emaztearekin. Senarra Gortean zegoela, senideei

militarki aktibatzeke eta Bilbora zuzentzeko lana hartu zuen bere gain, eta bertara joan zen. Hortik ondoriozta daiteke, Bando Borrokan, garaikideek ulertu zutela emakume bat, gai eta legitimatuta zegoela tropen buru izateko eta etsaia zegoen lekuraino lekualdatzeko. Lekukotza gehienek, ikusiko dugun bezala, estamentu desberdinetako emakumeek gatazketan duten eraginaren berri ematen dute, senideenganako edo auzokideenganako ahozko presioaren bidez, ekintzara pasatzera animatzeko. Emakumeak arduratu ziren erasoei erantzuteko alarma-ahotsa emateaz, Maria Sarmientorekin gertatu zen bezala, Aiarako leinuak etsaien erasoak jasan zuenean. Azkenik, zenbait emakumeren ahots urratuak aurkitu dira, beren oinazea adierazi zutenak eraildako ahaideen hiletetan abestutako bertsoetan, eta saiatu ziren haien oroitzapenera jotzen eta ohorea berrezartzen. Horren adibide Elvira de Leivak bere senarrari, Gómez González de Butrón, Arrasateko 1448ko erreketan hil ondoren abestutako endexa aipa daiteke (Castrillo, 2021:345-355). Andre feudalek, senarrik gabe, muga gutxi aurkitu zituzten edozein jarduera-esparrutan, eta botere politiko eta sozial handia izatera iritsi zirela. *Cuaderno de Ordenanzas de la Hermandad de Gipuzkoa* (1453)-an aldarrikatutako neurrietan agertzen da ahaide nagusiei boterea kentzeko, emazteei eta seme-alabei ere erantzule egiten zitzaie. Era berean, kasu batzuetan emazteak modu autonomoan jardun zuen, Zestoako kontzejuan ikus dezakegun moduan, Juan Beltrán de Iraetaren eta Maria Ochoa de Liconaren arteko 1515eko auziko epaian (Castrillo, 2020:147-149).

3.5.1 Bizkaiko andreak Jaurerriko buru Erdi Aroan

Badira Bizkaiko andre izendapena lortu zuten emakumeen lekukoak. Ezagunena, normala denez, Maria Díaz de Harokoa izan zen, Bizkaiko andre izendapena praktikara eramanean zuen bakarra izan zelako eta lan asko egin direlako bere pertsonaiari buruz. Hiribilduak fundatzeaz gain (Portugalete, Lekeitio eta Ondarroa) Bilbon, bere osabak emandako hiri gutuna berretsi zuen 1310.urtean, bere boterea eta jaurgoa indartzeko. Era autonomoan eta zuzenean gobernatu zituen bere basailuak. Lehenik eta behin, Juan infantearekin ezkondu egon arren, eta behin alargun, seme adinez nagusi bat izan arren, Juan “begibakarra”. Dokumentazioak egiaztatzen du eskumen militarrek, fiskalak, administratiboak, legegileak eta judizialak bete zituela, gehienetan bakarka. Eskumen militarrei dagokionez, 1332an, Mariak ahaide nagusiekin adostu zuen Unzeta, Gaztelugatxe eta Erañoko gazteluetan behar ziren baliabideak prestatzea, Alfontso XI.aren konkista saiakera bati erantzuteko (Castrillo, 2020:156). Beste adibideak ditugu: aurrekoaren biloba Maria Díaz de Haroko II. izenez esaguna zeinari bere boterea utzi zion nahiz eta gero

praktikan Juan III.a Nuñez Lara, bere senarra protagonismoa lapurtu. Bere bi alabak ere, Juana Nuñez Larakoa eta Isabel Nuñez Larakoa, oso denbora laburrez izan ziren Bizkaiko andre eta espetxean egin zuten tarterik handiena. Ehun urte geroago, berriz ere gizonen heriotzen ondorioz, Gaztelako erresuma bi emakume garrantzitsuen esku geratu zen: Isabel I.a Katolikoa eta bere alaba Juana I.a Gaztelakoa, Bizkaiko azken andreak (Aguirre García, 2019:44-49).

3.5.2 Andre feudalak:

Feudo baten buru ziren emakumeek zeregin erabakigarria izan zezaketela frogatzen duen beste adibide bat Maria Mendozarena da, Martiodako dorrearen eta Arabako mendebaldeko Lautadako herrien gaineko jaurerriaren titularra, 1404 eta 1472 artean. Umezurtz geratu zen gaztetatik, ezkontzeari uko egin zion eta ezkontzatik kanpo seme bat izan zuen, eta bizitzaren amaieran feudoa transmititzen saiatu zen. Ezkonduta zegoenean, Elvira de Gauna andreak ere gobernatu zuen. Gurasoengandik Aranaren eta Kontrastako hiribilduaren jaurerria jaso zuen, eta Juan Lopez de Lazkanorekin ezkondu zenean, Gipuzkoako etxe horretako ezkontide bihurtu zen. Elvira andreak bere merinoa bidali zuenean 1454an zenbait agindu betetzeko, bizilagunak Kontrastara joan ziren, bera bizi zen gotorlekua hartzera. Funtsean, jaun feudal baten funtzioak bete zituzten: hiribilduak sortu, omenaldi-pleituak jaso, legeak egin eta akordioak lortu beste leinu batzuekin eta bere basailuekin, lehen egonaldian epaitu zuten, errenta feudalez jabetu ziren, etab. Gainera, bere lurrak, burdinolak edo errotak kudeatzeko eta ondare berria eskuratzeko politika jakin batzuk garatu zituzten (Castrillo, 2020:151-153).

3.4.3 Ahaldunak:

Notario-iturrietan, agintarien aurrean hurbileko ahaideak ordezkatzeko aritu ziren emakumeak agertzen dira. Adibide on bat 1457koa da, haren ama zen Elvira de Leiba, Juan Alonso de Múgicaren ahaldun gisa jardun zuenean, Fortún Pérez de Jáuregui merinoarekin batera, Otxandioko herritarrei Aramaioko jaurerri bat emateko. Bestalde, Teresa de Hermendurua, Mundakako bizilaguna, 1499an aritu zen “*en nombre de Ochoa de Asquizu, su fijo, e como su procuradora*”, adinez nagusia izanik, eta nolabaiteko ondarea defendatuz auzi batean. Halaber, 1520an Mari Ibañez de Bediak, Bilboko bizilagunak, Teresa de Menchaca bere amaginarrebaren testamentuari gutizia egin zion, senarraren izenean eta prokuradore gisa (Castrillo, 2020:138).

3.5.4 Ekintza politikoetan parte hartzea:

XIV. eta XV. mendeetan, auzo-etxe bakoitzak osoko batzarrera joateko eskubidea zuten kontzeju-egitura bat zuten tokietan, izaera politikoko ekintzetan parte hartu zuten emakumeen adibideak daude. 1522an, Eskoriatzako herritarrek, Oñatiko kondeen jurisdikzio-jaurerriaren menpe zegoen Gipuzkoako elizateak, *batzarre*-tara joatera behartzen zituzten auzotarren emazteak. Hala ere, ez ziren egilesle gisa agertzen. Liskar sozialeko hainbat tesituratan parte hartzeko bideak ireki ziren emakumeentzat, gehienak Bandoen Borrokaren esparruan, komunitatearen gehiengoaren berrespena eskatzen zutenak. 1457. urteko Arabako Ermandadean erakusten denez, zenbait emakumek parte hartu zuten, baita kolektiboki erregearen eta Ermandadearen omenezko pleitu-omenaldia egin zen ekitaldietan ere. Aguraingo herriaren erregeari leialtasuna zin egin zioten eta inguruko zaldun boteretsuekiko aliantza orotatik aldendu ziren, eta emakumeak parte-hartzaileen %10 izan ziren, adibidez, Elvira Diaz andrea Galarretatik edo Carlota de Hetura andrea San Romanetik. Orokorrean, familia-buru alargunak ziren, ez baitzen aipatzen haien guraso-batasuna. Garai hartako gatazkek ere herrixken arteko liskarrak eragin zituzten lurraldearen nagusitasunagatik. Hemen ere emakumeen parte-hartzearen adibideak ditugu, hala nola, Larrinaga eta Cortazar kofradien eta Bizkaiko Isparte elizateko Gardata auzoko bizilagunen arteko auzi batean, Otoio mendiaren aprobetxamenduagatik. 1502an, bi aldeak akordio batera iritsi ziren, eta, kofradien kideen artean: Catalina Pérez de Cortázar, Jurdana de Larrinaga eta Juana de Axpe izenak agertzen dira (Castrillo, 2020:140-146).

3.6 Krimena

Jatorri judizialeko iturrien analisiaren bidez, Katalina de Bediaren egoera ikus daiteke, XV. mende bukaerako Bilboko emakume batena. Gaztelako dokumentazio kriminalean emakumeren bat agertzeak aukera ematen digu emakumeak subjektu aktibo gisa ikusteko. Bere pentsamenduak gizonezkoen diskurtsoak baldintzatzen baditu ere -kasu honetan, eskribauak-, tokiko eta eskualdeko auzitegiek ere zuzenbideko subjektu gisa onartu zuten, eta gaur egunera arte iritsi den paperean entzun eta erregistratu zen. 1488ko urtarrilean, Valladoliden, Errege-erregina Katolikoek epaia eman zuten Martin Sanchez de Arriagak emakume horren aurka aurkeztutako kasu kriminal batean. Ez da testu objetiboa, baizik eta helburu argi bat duen eraikuntza diskurtsibo baten aurrean, krimen baten errua emakume bati leporatzeaz arduratzen dena. Kontua da Katalina askatasunez mugitzen zela hiribilduaren planotik, eta gai hori etengabe zalantzan jartzen zuten Erdi Aroko ohiturak maila globalean

eta eskualdeka arautu nahi zituzten idazki patriarkalak (Muñoz, 2016:101-104). Iturri horretatik XV. mendeko etxe baten barruko harreman sozialak ikus ditzakegu. Horrela, Katalina bere leinuko gatazka endogenoen erdian kokatzen da, bere familiaren mendekotasun-lerroaren handinahi politiko eta materialen aurrean emakumeek duten posizioaren adibide bat emanez. Datu horiek kontuan hartuta, argi dago kideetasun politiko edo odol-ahaidetasuna ez zela, nahitaez, fideltasun-portaeren ondorio. Ez dira datu gutxi leinuen arteko gatazka luze eta suntsitzaileei buruz, tokiko boterearen monopolio menderaezin bihurtu nahi izan baitzuten. Gatazka bandokideek ez dituzte leinuen barne-gatazkak erakusten, eta are gutxiago emakumeek leinu horietan izan zezaketen papera. Alde horretatik, dokumentazioak eta kasu berezi honek balio bikoitza dute: lehenik eta behin, emakume baten identitatea eta ezkontza-harremanetatik kanpo modu kriminalean nola jokatzeko duen ezagutzeko aukera ematen digu; bigarrenik, dokumentu berberak Katalinaren jokabide errepikatua oinarritzen duten gatazkak eta banakako eta taldeko interesak identifikatzeko aukera ematen digute. Adibide honetatik azpimarratu nahi dudana da elementu komun bat ikusten dela: auzitegiek tratu berdina ematen diete gizonari eta emakumeei, diskriminazio edo desberdintasun judizialik gabe. Hala ere, zuhur jokatu behar da, legeriak emakumeengan delitu eskusiboak baitzituen, batez ere osagai moral-sexualekin zerikusia zutenak, hala nola ezkontzaren esparruko desleialtasunarekin (Muñoz, 2016:108-120).

3.6.1 Emakumeen aurkako indarkeria:

Zientziaren ikuspegitik, gai hau gero eta leku handiagoa hartzen ari da, batik bat egiten ari diren ekarpen garrantzitsuei esker, hala nola, Durangoko Kriminaren Historia Zentroa, Iñaki Bazán Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak sustatua. Berarekin erlaziona daitezkeen lehen argitalpenek hogeitau urte baino gehiago dituzte, M^a Teresa López Beltrán eta Ricardo Cordobaren lanei esker. Hala ere, ez zaio merezi duen arreta eskaini (Segura, 2008:25-26). Babesa eskatzen zuen bortxatuak kontu handia izan behar zuen frogatu ahal izateko. Emakume kopuru jakin batek berarekin zin egin behar zuela agintzen zen eskribauaren aurrean, haren hitza ez zen nahikoa. Bortxatua ezkongabea bazen, Mugako foruetan, birpopulatze-prozesuan zeuden lurretarako emanak, arazoa gizonarekin ezkontzean konpon zitekeen. Erdi Aroko legeetan jasotzen da, halaber, senar batek, egoki iritzitako arrazoiengatik, bere emaztea arbuiatu edo utzi eta beste batekin ezkontzeko aukera, berari horri buruzko iritzirik emateko inolako aukerarik eman gabe (2008:31-32). Isabel de Larrea, bilbotarra, 1504an plazaratu zuen bere senarrak, Martín de Areizak: “*grandes temores e*

miedos que le puso e muchos golpes e heridas que le dio” (Castrillo, 2020:55).

Egoera bakoitzaren azterketa hurrengo urratsak bete behar dituen lan-metodo baten arabera egin behar da. Lehenik, gizarte-prestakuntza bakoitzean emakumeek zer iritzi duten jakin behar da. Ondoren, tratatu txarrak ematen dituenari ezar dakioken zigorraren. Esparru juridikoa ezarri eta gero, arauen aplikazioa eta kasu horiek jasotzen zuten tratamendua balioztatu behar dira, bai emakumeen eskaerei buruzko informazioa dagoen prozesuetan, bai aitorleen katiximetan edo eskuliburuetan. Doktrina-itunetan aztertu behar da ea emakumeen aurkako indarkeria materiala bekatutzat jotzen zuten. Bi kasuetan, auzipetuen arteko familia-harremana lehentasunezkoztat jo behar da gertaera bakoitza baloratzeko. Cristina Segura esaten duen moduan: *“La Historia, como en tantos sucesos, también en este tema, debe ser un instrumento de denuncia y de educación, para contribuir a erradicar prácticas endémicas injustas con las mujeres y acabar con mentalidades patriarcales todavía presentes en sociedades que se consideran desarrolladas”* (2008:38).

4. Juana de Butrón Múgica:


Atal honetan, Behe Erdi Aroko euskal noble baten bizitza aztertuko dut. Historiografian ikusi dugunez, biografiek gero eta gehiago erakartzen dute ikertzaileen eta irakurleen arreta. Adierazi behar da, batzuetan, informaziorik ez izateak zaildu egiten duela ezaugarri horietako lan bat, eta, horren ondorioz, azterlanak egin daitezke, nortasun indartsu batetik abiatuta. Bere bizitza, bizia eta gorabeheraz betea, gure ahaleginaren zati handi bat eskainiko diogu, baina narrazioa bera mundu honetara etorri baino urte batzuk lehenago hasten da.

4.1 Genealogia eta Butrón Múgica leinua

Memoria genealogikoaren eraikuntza selektiboa da, aliantza-estrategia asko ere hautakorrak diren bezala. Izan ere, Behe Erdi Aroan eta Betean zehar bidea ireki zuen sintaxi genealogiko berria, irudikapen grafiko zuhaiztarra den asmakizun handi horretan gauzatu, leinuaren ardatz nagusia ulertzeko modu berri batean duten praktika sozial berrien adierazpen hutsa da. XX. mendea baino lehenagoko genealogiak horizontalean garatzen dira (Dacosta 2019:58). Teknologia berriei esker, eskuragarri dugu Salazarren fitxan, zeina leinuei buruzko datu-basean sartuta baitago: HILAME (<http://www.hilame.info>).

Leinua, Arsenio Dacostaren hitzetan, garaiko boteretsuen artean gehien zabaldutako soziabilitate-esparrua da. Bizkaiko kapare-leinua soziabilitate globalizatzaileko esparru bat

da, eta elkarrekin benetako edo ustezko ahaidetasun-harremana duten gizabanako talde baten eta, batez ere, gizartearen barruko ondare eta estrategia komun baten araberako interdependentzia batzuen arteko harreman posible guztiak biltzen ditu. Leinua ahaidetasuna da, baita mendekotasun ekonomikoa, ondasunen eta zerbitzuen birbanaketa, bezero-loturak eta abar ere. Izatez, leinua kapareek gizabanako gisa duten nortasunaren funtsezko zatia da, bien helburuen artean erabateko identifikazio teorikoa izateraino. Guztiaren oinarria Lope García de Salazarren bi kroniketan dago, bereziki *Libro de las Bienandanças*-en. Horrela, Enkarterriko leinuen ezagutza zehatza dugu, gainerako bizkaitarrentzat leinu horien garrantziarekiko modu proportzionalan gutxituz doana (Dacosta, 2004:23-25). Ideia bat izateko, “*Los linajes de Bizkaia en la Baja Edad Media: poder, parentesco y conflicto*” liburuaren mapa bat atxikitzen dut.



1.Irudia: Bizkaiko leinuen mapa (Dacosta, 2004:28)

Bizkaian leinuen arteko bat-egiteak gertatu ziren, eta justu nire ikerketaren kasuak dira: Múgica/Butrón eta Salazar/Muñatones. Gainera, Butroitarrekin aliantza bitxi bat ikus dezakegu, non kontrako aldeetan dauden leinuak elkartzen diren ezkontza baten bitartez 1450.urtean (Dacosta, 2004:209-218). Horrek erakusten du emakumeen garrantzia bandoak elkartuz eta garai gatazkatsu eta borrokatuetan bakearen sinbolo gisa.

4.2. Salazar leinua:

Atal honetan, aurreko belaunaldiek Salazarren eta Butroien arteko aliantza zergatia azalduko dut. Aliantza hori, funtsean, arrazoi geopolitikoetan oinarrituta zegoen. Haren eraginpean zeuden, alde batetik, Enkarterriak, Bizkaiko jaurerriarekiko atxikimenduan eta Ibaizabal ibaiaren bi ertzek osatutako markoetan. Ezkerretik, Somorrostro harana dago, Salazar de Muñatones-en kontrolpean zegoena, eta, ibaiaren beste aldetik, Uriberen merindadea, bere emazte Juana de Butrón-en familiarena zen (Aguirre, 1994:114).

Gizabanako bat aztertzeko abiapuntua familiaren aurrekariak aztertzea da, eta, Lope García de Salazarren kasuan, haren leinuak bere bizitzaren erdigunea zehaztu zuen. Gure kronikagilearen esanetan, Salazartarrak Santoñako lurretara iritsitako zaldun godo batengandik datoz, gerora, Gaztela Zaharreko kostalde eta merindadean zehar barreiatuz joango zirenak dorreak populatzen eta elizak sortzen. Bere trebetasun politikoaren adibide bat da, hau da, jabetza kapareentzako justifikazio historiko handiagoa nahi zuen. Hala ere, hau alde batera utzi eta berak ezagutzen zuen lehen Salazarrekin hasi zen, Lope Garciarekin. Alvaro Díaz de Mendozaren alaba Maria Diazekin ezkondu zen. Semeegan gazteena oinordekoa izango da, nahiz eta txikia izan. Interesatzen zaiguna zera da, Somorrostroko sasi-oinordekoak eta arbasorik kualifikatuenak azaltzea. Juan López, sasikumea, San Martinen sortzaile bezala ezagutzen da, Somorrostroko toki honetan Salazartarren lerro berria sortu zuelako Diego Perez de Muñatonesen Ines gaztearekin ezkondu zenean. Muñatones lurrean emaztearen dotea erabiliz, dorrea eraiki zuen, eta hemendik aurrera, Salazar eta Muñatonesen armarriak elkarrekin joango dira (Aguirre, 1994:17-33). Ezkonsari hori ezinbestekoa da leinuko adar bat orube berri batean ibiltzen hasten den kasu gehienetan (Dacosta, 2004:205). XIV. mendeko Loperen aitonaren gertaeretara pasatuz, data kronologikoak gehiago zehazten hasi ziren. 1360an hil zen Juan Perez “el prestamero”, Muñatondarren senide zaharrena, eta haren seme Ochoak hiru urte zituen. Bere tutoretza bere ama Mencia de la Sierrak, Pedro Fernández de la Sierrak eta Juan Sánchez de Salazarrek eramane zuten. 1383an, Ochoak 25 urte zituenean, bi urte baino ez zituen Teresa alaba zortzi urte zituen Ochoa San Martinen oinordeko eta lehengusuarekin ezkondu zuen. Ochoa izurriak jota hil zen Portugalgo gerran 1385. urtean, eta bere ondorengoak Juan Sanchezen babespean utzi zituen berriz ere, Salazarren eta Muñatoien bat-egitea bizkortuz. Gatazka eta gerra etengabeen testuinguruan, 1393an, Larrauriko batailan irabazle izan zen Butroeko jaunak Billelako hil zuenean, jazarria eta zigortua izan zen, eta orduan San Martinen hartu zuen. Abegi on horrez gain, Ochoa, Butroitarren orubea defendatzera bidali zuten. Ochoa hor

mantendu zen Ermandadearen borondatearen aurka, eta bere semeak, aurrekari argigarria ematen digu Abraren eta Idiazabalen arteko etorkizuneko ezkontza-ituna ulertzeko (Aguirre, 1994:37-42). XV. mendeko azken hilabete hauetan, oinordeko berri bat jaio zen, Bizkairako bere lehen historialaria izango zena.

4.2.1. Lope García de Salazar:

Gaztaroan zehar, aitaren ibilerak jarraituko zituen, eta horrela leinuen bilbea ikasi. Garai hartako jarduera politikoak balantze positiboa eskaintzen zuen: Butroitarrekin aliantza sendotzea eta Moro korrejidorearekin ospe handiko lankidetzat estua. Sopuertatik barrena Castrotik Salcedoko haranerako igarobidean borrokak izan ziren urte hauetan, Balmasedatik Gaztelarako bidea menderatzeko helburuarekin. Aipatzekoa da 1421ean Ochoak ez zuela bere aliatu Oinaztar Butroitarrekin Akundiako guduan parte hartu, mendebaldeko euskal lurraldean zentratuz. Hurrengo urtean, 25 Ganboatarren heriotzen ondorioz, Gonzalo Gómez eta bere semea erbestera kondenatu zituzten. Hiru urte baino ez ziren falta ezkontzarako, eta, agian, zigor horrek konpromisoa azkartu zuen (Aguirre, 1994:83-91). 1425ean, Juana de Butrón andrearekin ezkondu⁵ zen eta sei seme eta hiru alaba izan zituen⁶. Ezkondu ziren 18 eta 25 urte zituztela. Antzeman dezakegy Salazar familiaren belaunaldi bakoitza erresumako familia handi bati lotuta egon zen (Avenoza, 2006). Ochoako Ondorengo Pleitoa polemikoa izan zen, aitaren eta semearen artean zoritxarra baitzegoen⁷. Ochoak irain egiten zion Loperi, “Traidore eta txakur” deituz, zeinak berea kendu nahi baitzion, eta armak erabili zituen La Sierrako etxean babestera behartu arte. Horrek Juan “el Moro”-ren kasura gogorarazten du, geroago ikusiko dugun bezala (Aguirre, 1994:92-95).

Villacortak Lopek LBF liburua idaztearen erabaki zuenaren berri ematen digu. *“Atxilotuta egon zen bitartean, liburu hau idatzi zuen, biktimismo gehiegizkoarekin, bere*

⁵ Ezkontza ez zen Erdi Aroko gai erlijiosoa, itun ekonomikoa baizik. Beraz, kontratu sozialen artean ondasun ekonomikoa zituztenek baino ez zuten sinatzen: noblezia, burgesia eta egoera ekonomikoko oneko artisau edo nekazari batzuk. Klase baxuenen artean, litekeena da maitasun-sentimendu bat egotea, boteretsuen artean ez bezala (Segura, 2016:84).

⁶ *Libro de las bienandanzas e fortunas* kontatzen digu seniparteen eta sasikumeen artean seme-alaba ugariren aita izan zela. Garai hartako esaera ezagun batek honela zioen: *“Quien nombre no tiene, Salazar se pone”* bere ospea islatuz (Villacorta, 2015:33).

⁷ *“Lope García de Salazar mi marido, hijo mayor legitimo de Ochoa de Salazar, su padre, que dios aya, el qual dicho Ochoa de Salazar por algunos rencores y enojos que avia concebido contra el dicho Lope García de Salazar su hijo avia ordenado e mandado asi entre vivos como en su ultimo testamento muchas de diversas cosas enajenando e distribuyendo entre sus hijos menores e apartando del dicho solar muchos e diversos bienes en danno e perjuicio del dicho Lope García su hijo mayor e del dicho mayorazgo e preeminencia a el debido e amenguando la honra y estado del dicho solar. Empero por non ser nin aver seydo cosa razonable e por ser e aver seydo contra la dicha general y especial costumbre entre todos los dichos generosos nobles hijosdalgo ansi como dicho es guardada por ende en aquestas partes, no se guardo ni tubo la disposiçion del dicho Ochoa de Salazar, antes el dicho Lope García según la razón lo adeudaba finco e [per]manecio con el dicho solar y en todo su onor, rentas e bienes del asi como hijo mayor legitimo del dicho Ochoa de Salazar”*. (AHN, Secc. Consejos, Mayorazgos Españoles, Leg. 37610, exp. 418, fols.13-18). Jose Ramón Díaz de Durana irakasleak utzitako testua.

jokabidea justifikatzeko eta estamentu ordena babesteko, jaunen agintearen eta Ermandadeetan bildutako hiribilduek lortu zuten boterearen aurrean” (Villacorta, 2015:25). 1454ko kronikan, hau da, *La Crónica de los Señores de Vizcaya*-n, Bizkaiko Jaurreriaren jatorrizko mitoaren bertsio bat jaso zuen, hogeitun urte geroago *Las Bienandanzas e Fortunas*-en sartutakoaren oso bestelakoa. San Martin de Muñatones preso zegoen zahar honen munduaren ikuspegia ez da mende erdialdeko banderizo beldurgarriarena. Iragana beste ikuspegi batean agertzen da: garaitua (Juaristi, 1994:201).

4.3 Ezkontza eta zuhaitz genealogikoa

Aliantza hori arrazoi estrategikoetan oinarrituta zegoen. Lehenik eta behin, Enkarterrietako berezitasun politiko errespetatuak ongi definitzen zuelako bere eragin-eremu naturala, Ibaizabal ibaiaren bi ertzek, Somorrostro ezkerrekin Salazar de Muñatonesekin eta eskuina Uribeko merindadearekin osatutako markoek Bizkaiko jaurreriarekiko zuten atxikimenduan. Gainera, merkataritza-lerro batzuk zituen Bilbon, bien artean banatuz. Bestalde, badakigu bi alboetako ibilbideetan zehar tentsioak luzatzen zirela aberastasun-iturri zen kostaldera iristeko, eta, beraz, elkartuta, itsasertzeko base sendo bat eratzen zuten hurbilen zegoen barnealdearen aurrean, ziri militar gisa, Durangaldea Abendañotarren aurka eta Salcedoko haraneko Velascotarren kontra proiektu zitekeena (Aguirre, 1994:114).

Ezkontzak garrantzi politiko handia izan zuen jende handia bilduz, Butroitarrak jaurreriko leinurik nagusizat hartua, Somorrostroko eta Enkarterriko inguruan Salazar leinua inportanteena zen bezala. Juana, Portugaletetik San Martinera iritsi zen mando baten bizkarrean, eta han jaitsi zen ateetan, herri ikusminaren erdian. Ezkon-zeremonia amaitu ondoren, Ochoa eta Teresa, San Martinen jaunak, errainarengana hurbildu ziren, eta eskuan sorta eta lur kantitate jakin bat jarri zizkioten, Bizkaiko Foru Orokorren tradizioak jarraituz. Horrela, Ochoak eta Teresak, kronikariaren gurasoek, dorretxe zaharrean sartzen dute emakume gazte hau. Juana andreari emandako ondasunei dagokienez, La Sierrako etxea etxebizitzarako eta El Arenaoko burdinolaren errentak eta La Puente eta Fresnedoko zingirak mantenurako izan ziren, urte batzuk geroago aprobetxatzeko aukera izan zuena banandu zenean, aurrerago ikusiko duguna. Bere aldetik, askotariko dote ekarpena izan zuen: soinekoak, mihisez betetako kutxak, altzariak, zilarrezko piezak... gehi Altzagako baserria, azkenean bere seme Pedrori saldu ziona (Aguirre, 1994:114-115). “*Ajuar e arreo mugeri*” elementu garrantzitsua zen emakumeen dotearen eraketan, hau da, aipatu ditugun erabilera pertsonaleko bitxiak eta arropak, nahiz eta gehien ematen zen ondasun mota altzariak izan,

eta proportzio txikiagoan bitxiak (Castrillo, 2020:48-49). Butroitarrek ezkonsari on bat eman zioten bere alaba Juanari, Lope García de Salazarrekin zuen lotura positiboa baitzen bere estatus sozialerako. Ezkonduta egon ziren lehen 15 urteetan La Sierra etxean bizi izan ziren, Ochoa de Salazar 1439an hil zen arte, San Martin etxebizitza nagusira joan ziren.

4.4 Testuingurua eta Bando gerrak:

Bando gerren testuinguru politiko soziala azaltzen saiatuko naiz, funtsezkoa baita aztertzen ari naizen gaia ulertzeko. Lope bandoen arteko borroken kronista izan zen, baita protagonista ere. Leinuaren buruan, garaiko euskal iturriek “ahaide nagusi” deitzen dutena zegoen. Behe Erdi Aroan, leinuak unitate handiagoetan taldekatuko dira, hierarkizatuak, “bando-leinu” deituko ditugunak. Hasteko, leinu ezberdinen nortasuna adierazten zuten oinarrizko elementuak hauek ziren: alde batetik, dorretxea, leinuaren familia nagusiaren bizilekua, errota, burdinola, eliza... Bestetik, leinuko kideen jatorri eta arbaso komun baten kontzientzia (abizen bat armari batekin). Euskal nobleziaren kasuan, leinu bakoitzaren identitatearekin batera, beste identitate kolektibo bat ikus daiteke, “Oinaztar” eta “Ganboatar” izenak jasotzen zituzten bi bandoetako bati atxikitzearen bidez. Bizkaian, lehia nagusia Avendaño eta Butroitarren artekoa zen (Díaz de Durana eta Dacosta, 2013:91-95). Ahaide nagusiak erabiltzen zuen giza azpiegiturak hiru ordena oso desberdin zituen: bata, odol berberaz elkartutako leinu-kideek osatutakoa; bigarrena, ezkontzaren bidez primarioarekin aliatutako hainbat leinurekin koordinatua; eta hirugarrena, koiuntura-intereseko elementu heterogeneoagoez osatua. Batasun agnatiko sendo horretatik kanpo, bigarren ordena bat eratzen zen ahaide politikoekin, hala nola aitaginarrebekin, koinatuekin, etab., leinuko emeen bidez. Hala ere, handitze artifizialago horrek bazituen berezko arrisku batzuk, hala nola hasierako interesetan izandako aldaketek eragindako liskarrak, familia-adar bat bereiztea edo leinu osoa desagertzea (Aguirre, 1994:103-104). Erdi Aroko berezko balio kolektiboko idealaren barruan, gure autoreak beti adierazi zuen familiaren botere ekonomikoa ondo finkatuta egon behar zela eta maiorazkoaren bidez leinuaren ondare osoa mantendu behar zela. Oro har, jarauntsitako ondasunen partaidetza oro gaitzetsi zuen, leinu garrantzitsuen agertoki politikoa desagertzeko jatorri gisa. Beraz, ezin zuen onartu egunen batean bere jarauntsia zatitzea eta horrela ahultzea, eta ikusiko dugu hura bere osotasunean babesteko borrokatu behar izan zela, etorkizun osasungarrirako ondarrerik sendoena bailitzan. Bizkaiko ohitura zen leinu bereko lehenengo jaioa oinordetza jasotzea, eta Juan II.a Bizkaiko jaunari eta Gaztelako erregeari maiorazkoa borondate askez sortzeko eskatutako lizentziarekin dena aldatuko da (Aguirre, 1994:197).

1457-62 urteen artean, Jaurerriak egoera politiko delikatua izan zuen, eta gizarte-sumindura izugarri baten artean eztabaidatu zen, ahaide nagusiek Ermandadeen aurka borroka egin zutelako. Horren adibide gisa, 1456ko uztailean, Gipuzkoako eta Bizkaiko bando-buruek beren ukituak alde batera utzi eta Gipuzkoako zortzi hiribilduk egindako Ermandadearen aurka oldartu zirenean. Honek pertsonaia hauen erbesteratzea eragin zuen eta Jimenako gazteluan egotea eskatu zitzaien. Bidaia horretan gaixotu egin zen, eta, jauregiko izapideak mantso zihoazenez, ez zuen erregearen baimenaren zain geratu nahi izan. Erregearen autoritatea zalantzan jarri zuen, baina azkenean amore eman zuen. Erbesteratzearen bigarren aldi horretan, Enkarterrin Oñatiko buru gisa, Santoñan bizi ahal izan zen, kondearen babes zuzenaz gozatzeko. Nahitaez politika aktibotik aldenduta, bere aisia desbideratu behar izan zuen historiarako berezko zaletasunari emanez, LBFn ikusten dugun bezala. 60-70eko hamarkadan, Gaztelako jaun handiek mobilizatutako aparatu militarra zalantzan jarri zen, ahaide nagusiekin bat egin zuten bilau-komunitateei aurre egin baitzieten. Tentsio hori garai gorenera iritsiko da 1471n, Bizkaiko leinuek Bilbo Haroko kondearen aurka babestu zutenean (Aguirre, 1994:168-183). Ondorioztatuz, Euskal Herriko leinuen estrategiak ez daudela koordinatuta. Gatazkaren oinarria ez datza arlo ekonomikoan, krisiaren kolpea gutxi sufritu dutelako, eta batez ere, Bizkaiak XV. mendean izan zuen garapen ekonomiko handiaren ondorioz. Funtsezkoena “balio izateko” grina da, eta bere adierazpen politikoan, non gatazka internobiliarioak bere iturririk zuzenena izan dezakeen. Lanbideak eta errege-errentak metatzen saiatzen dira, gainerako leinuen gaineko eragina lortzeko (Dacosta, 2004:389-390).

Lehen aipatu dut nola emakume nobleek eragina izan zuten gerra-gatazketan. Bando-borrokekin ikusten ari garenez, oso garai gatazkatsua zen. García de Salazarrek kronikan jaso zuenez, bere emaztearen erruz, bost seme-alaba Gómez González de Butrón aitagarrebarren etxera bidali behar izan zituen. 1444ko Gangurengo gudan Butroitarrak menderatu ondoren gertatu zen hori, Pedro Avendañoren aurka, indartsu sentituz, leinu neutraletako jendea biltzen saiatu zen, berriro borroka zezaten. Juana andreak ahaleginak egin zituen seme-alabak aitaren alderdian sar zitezten, eta, kronikariak hasiera batean uko egin zion arren, azkenean konbentzitu egin zuen (Castrillo, 2021:349). Testuinguru horretan, eta nahiz eta gatazkan gizonezkoak protagonistak izan, emakumeek hainbat modutan esku hartu zuten, garaiko iturriak erakusten duten bezala. Juana andreak gertutik bizi izan zituen indarkeria-gertakariak, eta zeregin aktiboa izan zuen horren aurrean.

4.5 Maiorazkoa eskuratzeko tirabirak Salazar familian:

Lopek, 1454an, *Cronicas de Vizcaya* idatzi zuenerako, senar-emazteek hamabi seme-alaba eta zortzi alaba izan zituzten. 1471n, *Las Bienandanzas e fortunas* konposatu zuenean, bere seme-alaben beste harreman bat egin zuen, sei gizon eta hiru emakume bakarrik heldu zirela adieraziz. Handitik txikira bizirik zeuden gizonen izen hauek eman zitzaizkien: Ochoa, Lope eta Gonzalo (aitona, aita eta amaren aldeko aitona). Emakumeei dagokienez: Teresa, Mari Alonso eta Juana (aitaren ama, amaren ama eta ama). Muñatones leinuko izenak Salazarren gainetik jarri ziren, Butroitarrenak gailenduz. Sasiko seme-alabei dagokienez, kronikagileak bi talde egiten ditu, lehena ezkondu aurretik gaztetan izandako hirurekin: Juan, Diego eta Mencia. Bigarrena, berriz, bere zahartzaroko sasiakin osatuta zegoen, eta gizon eta emeetan pluralizatzen du, zenbakien edo izenen zehaztasunik gabe (Aguirre, 1994:115-116).

Bere emaztearekin izandako liskarra izan zen, maiorazkoaren⁸ fundazio-dokumentua ezeztatu nahi baitzuen, bere seme Juanen aldeko eskritura berri bat idazteko asmoz, Lope García de Salazarren gainbehera ekarri zuena. Familiako kide guztiak jokoan zegoen maiorazko haien erakargarriaz. Lehia hori pribatua izan zen: ezkontzatik kanpoko abenturengatik, hain zuzen ere. Bizkaian, lehen jaioa (leinu berekoa), kasu honetan Ochoa zena, oinordetzan hartzeko ohitura zegoen, baina fraide gisa sartu zen, lehen ondorengotza-arazoa sortuz. Orduan, bigarren semea, Lope, haren ordeztu jarri eta Hurtado andrearekin ezkondu zuten, maiorazkoa emanez. 1452an, Ochoa Ortiz de Montellano eta Juan Sánchez de Billela eskribau portugaletarren aurrean, Lope aitek onartu zuten. Dokumentuan, leinua lerro nagusian desagertzeko arriskuak alde batera uzteko asmo nagusia adierazten zen, eta berariaz debekatzen zuen etorkizunean San Martinek ez elizgizon ez fraiderik heredatu ahal izatea. Oinordekotza arazoa geroago sortu zen, Ochoak monasterioa utzi zuenean. Juan II.aren gortera joan zen, maiorazko-ahalmen hura atzera bota zezan, hala ere, aitak ukatu egin zion. Ochoa Isabel de Mendozarekin ezkondu zen, eta aitaren, Haroko kondearen, etsaien konpainietan egon zen, baina, hala ere, amak, senarraren kontra jokatzu, ongi hartu zuen, eta oinordekoa izatea nahi zuen, bere lurraldeko ohiturei jarraitzeko. Horrela, Juana bere senarraren borondateen kontra hasi zen, eta diruz lagundu zion Ochoari

⁸ Lope García de Salazarrek San Martin, La Sierra eta Santelices dorreak zituen, eta, horrez gain, honako burdinolak eta errotak ere bazituen: “Vados” eta Atxuriagako errotak; Arenaoko burdinola eta La Puente eta Fresnedoko errotak. Gainera, errenta handiak zituen: burdin mineralaren trafikoagatik eta merkataritzagatik kobratutako zergak, Portugaleteko probestutza, gurdien bideen errenta, Portugalete, San Martin eta Galindoko portuetako bidesariak eta, azkenik, 1447tik aurrera koroa lantza eta baleztariekin zerbitzatzeagatik kobratutakoak. Horri guztiari monasterioen errentak gehitu behar dizkiogu, Muskizko San Julian, Karrantzako San Migel Ahedokoa eta Galdameskoa (Bañales, 2002:107-108).

(oinordetzarik gabeko lehena) eta Juan “el Moro”, kronikariaren beste seme etsaiari, orain ikusiko ditugun arazoengatik. Lekuko batzuek diotenez, nahiago zituen, haren antz handia zutelako, agian temperamentuzko egituraz edo itxura fisikoaz ari zen, Juanen izenari erreparatuz gero beltzarana izan zitekeena. Senar-emazteen arteko liskar horiek eztabaidak eta haserreak eragin zituzten, eta familia garrantzitsu honen zatiketa bultzatu zuten. Lope eta Hurtado ezkonberriak Portugaleten bizi izan ziren eta hiru seme-alaba izan zituzten: Ochoa, Lope eta Maria Torres. Bere aitaren aliatuena bihurtzen ari zen eta 1457az geroztik, bere gaitasun handiak erakutsi zituen (Aguirre, 1994:198-205).

Beste arazo handi bat, Lope oinordekoa Henrike erregearen alde borrokan hil zenean gertatu zen, maiorazkoa, hildakoaren seme nagusiarengana pasatuz, 1452ko bere nahia jarraituz, oraingoan, ez zuen Juana bere alde. Azken honek, bortizki erantzun zuen, bere sabeletik erditutako norbait izan behar zela, beste ama eta leinu baten seme-alabak baino lehen: “*E que la dicha doña Juana dió grandes voces⁹, respondiera que nunca ploguiese a Dios que ella consistiera en dar lugar a tal cosa que salvo que fuera para su hijo mayor que estaba vivo... e Lope García de Salazar viéndole tan furiosa no entendió más en ello e así se fueron...*” (Aguirre, 1994:207). Gainera, 1468an, Ochoa (fraide izan zena) beste hiru seme-alabekin batera hil zen Elorrioko guduan, egoera are gehiago zailduz. Juan agertzen da, bizirik geratzen zirenen artean seme zaharrena. Hemen, kronikaria, oposiziogile asko aurkitzen hasten da, horien artean, bere emaztearen familia.

Egoera horren aurrean, Juana andreak, etxe nagusitik alde egin zuen eta, gainera, kolpe gogor bat eman zion Loperi, bere borondateari gailenduz, familiaren herentziaren zati bat bere seme Juanentzat jarriz 1469¹⁰an. Badirudi ez zela umore aldaketek eragindako ekintza izan, baizik eta erabaki heldu bat. Horrela, berari zegokion zatia semearen izenean jarri zuen, hau da, aipatu ditugun bere ezkontzan jasotako ondasunak. Juanari San Martinen

⁹Emakume zintzoaren beste ezaugarri bat zuhurtasuna da. Isila izan behar du, behiratu, lotsagarria... Eliza da argi ikusten den espazioetako bat. XV. mendearen bigarren erdialdeko Gernikako ordenantza baten adibideak daude, non Elizan dagoen zalaparta aztertzen den. Mende honetako hiribildu guztietan daude antzekoak, eta asteburuetan tenplura joateko mugatzen da, emakumeak etxean geldirik egotera behartuz mezetara joateko deitu arte. Baita erdeinuak abesteko debekua ere. Erabilera horrek ez ditu klase sozialak ulertzen, nobleek eta pobreenek praktikatzan dutelako (Castrillo, 2021).

¹⁰“*Empero que como quiera que asta aquí el dicho mi señor Lope García non ha querido ni quiere que el e yo conjuntamente hordenemos e dispongamos lo que al bien e onra del dicho solar e parientes e de toda nuestra posteridad conviene e pertenece, como quier que yo espero que el ara y hordenara aquello que debe y le pertenesçe según su descrecion y estado e linaje, empero porque yo deseo reposar mi anima e corazón y en tiempo e sason, quiero y puedo determinar lo que a este pertenesçe. Por ende, porque el dicho Juan de Salazar mi hijo legitimo y del dicho Lope García mi marido fuiste y sodes al presente hijo legitimo mayor suyo e mio e fuiste e sodes tal persona de tal bondad e virtud que merescedes muy bien aver e heredar el dicho solar e mayorazgo e honra del e que vos podedes e sodes bastante para lo tener e gobernar en su estado e honra que pertenesçe a semejante solar e señores e parientes*” (AHN, Secc. Consejos, Mayorazgos Españoles, Leg. 37610, exp. 418, fols.13-18).

zegokion zatia eskualdatzearekin, azkenean, herentziaren bloke trinkoa banatu egiten zen; izan ere, haren zatia ezkontza-egunean ezkontza-hornian jasotakoa hartzen zuen bere baitan, eta ezkontza-ondasunen euskal komunikazioaren araberrako beste zati bat ezkontza-garaian irabazitako ondasunen erdiek osatzen zuten. Akordio berri horretan ez zen Portugaleteko probestu izatera heldu zen, Pedrok San Martinen seme gazteenak beretzat nahi zuelako edo anaia Juanekin adostu zuelako kronikariaren biloba Ochoa ilobaren eskubidearen aurka. Gainera, bere biloba Furaño Sánchez de Salcedo zaldunaren alaba batekin ezkontzen da, dena ziurtatzeko, baina dena okertu zen neska-laguna hil zenean, egindako konpromisoa hautsiz eta Juan-i bere asmoa erraztuz (1994:208-209). Horrela, Juan “el Moro”-k ezinezkoa zirudiena lortu zuen aita giltzapetuz, eta bere heriotza aginduz. Ez zen lan erraza izan, Lope Garciak aliatu berriak bilatu baitzituen bere biloba Ochoa Salcedorekin ezkonduz, eta aurrerago Haroko kondearen arbitrajearekin, baita armekin ere, baina porrot egin zuen. Beraz, Juanaren nahia¹¹ bete egin zen, bere semeak maiorazkoa eskuratuz, Portugaleteko (horien artean dorrea) eta Karrantzako jabetza batzuk izan ezik, hauek Ochoaren esku geratuz baitziren, gerora Portugaleteko probestu bihurtuz (Bañales, 2002:132).

Familiaren bilbe honekin ondorioak atera dezakegu. Beraz, 1471.urtean, leinuen boterea hautsita, balio horiek jasanezinak ziren. Familia taldeak sakabanatu egiten dira: seme-alabak, legitimoak edo sasikumeak, elkarren aurka borrokatzen dira herentzia arrazoiengatik. Hiribilduen edo beste leinu batzuen jabetzak lortzeko aukerak mugatuta, bandokideak euren odolekoen aurka bihurtzen dira (Juaristi, 1994:201). Emakume horien ekintza politikoa ulertzeko beste alderdi garrantzitsu bat gehitu behar da. Bere jaurerri eta jabetzetan egiten duten gobernu- eta administrazio-ekintzaz ari gara, eta Juana andreak lehen pertsonan jarduten du. Noble horien jarduera ikus daiteke boterea zuzenean erabiliz, bere jaurerriak gobernatuz eta, horrekin batera, erabakiak hartuz, arauak ezarriz eta betearaziz.

4.6 Gatazkak:

Aurreko atalean, maiorazkoaren inguruko etengabeko borroka aipatu dira eta orain gai pertsonalagoak aztertuko ditut. Lope Garcia, urteen poderioz, harreman gehiago izaten hasi zen ezkontzatik kanpo, eta, azkenean, San Martin dorrean bizi izatera heldu zirenak. Horrek “*a la brava doña Juana*” *Las Bienandanzas e fortunas* liburuaren egileak izendatzen duen

¹¹ “Sepan quantos esta carta e ynstrumento publico de mayorazgo dote e donación vieren como yo Doña Juana de Butrón, hija legitima de Gonzalo Gómez de Butrón (...) otorgo y conozco que dono y doto y quiero hacer e ago mera e libre e pura dotación e docto perpetuum e no revocable que es dicha entre vivos para ahora e para siempre jamas a vos y en vos el dicho Juan de Salazar mi hijo mayor legitimo e de Lope e de Lope Garçia a los bienes e de los bienes e cosas siguientes. 13 de enero de 1469” (AHN, Secc. Consejos, Mayorazgos Españoles, Leg. 37610, exp. 418, fols.18).

bezala, haserrea piztu zion eta ondorioz, liskar gogorak izan zituzten, batzuetan kronikariak ezpatarekin mehatxu gogorak eginez¹² edo giltzapetzeko agindua ematera iritsi zen. Lekuko batzuen arabera, Juanak “*por no hacer vida con ellas (las mancebas)*” erabaki zuen alde egitea. Hemendik aurrera, bere bizitza independentea hasiko zen, Altzagako baserrian eta beste tokitan bizi zelarik. Bere mendeku-gogoak, bere seme Gonzalo manipulatzera bultzatu zuen, eta honek belarriak moztu zizkien neskameei. Horrek ondorio larriak izan zituen; izan ere, senarrak La Sierra dorrea eraitsi zuen, esan bezala, jabego hori bere ezkontza-hornietako bat zen. Behin betiko¹³ aldendu ziren Juana andrea Santurtziko monasterigira bizitzera joan zenean, berekin hainbat ondasun zeramatzala, gerora senarrak lapurtu egin zizkiola esanez. Azken lau urte hauetan behin Galiziako Santiagora joan zen erromesaldia egitera. Juana andreak bizi izandako beste bi gertakari azpimarratu behar dira: lehenengoa, kronikaria preso zegoenean, honek jasan zuen setioan parte hartu zuen, zorte txarrarekin, besoan zauritu baitzuten. Aldi berean, Loperi ardoz betetako upelen uztaiak moztu eta burdina lapurtu zioten Juanaren onespenearekin. Azkenik, 69 urte zituela, eskualde honi eragiten zion izurritearen ondorioz hil zen (Aguirre, 1994:212-218). Erdi Aroan, monasteriora joan eta jainkoari ematea emakume onaren idealtzat hartzen zen. Gogoratu behar dugu hispaniar legedi sekularrak gogor zigortzen zituela senar adulteroak, batez ere emakumeak. Foru Errealean jada adierazten zen: “*sy muger casada ficiere adulterio, amos sean en poder del marido, e faga dellos lo que quisiere e de quanto que an...*” (Aznar Gil, 1989:326). Senarraren adulterioa ordenamendu gutxiagotan jasotzen da, eta zigorra zehapen ekonomiko bat ordaintzera mugatzen da.

4.7 Elementu materialak: San Martín de Muñatones

Atal honetan arretaz aztertuko ditut elementu materialak, hots, San Martin eta gotorlekua. Juan Lopezek eraikitako lehen orubeari dagokionez, XIV. mendearen bigarren laurdenean egin behar zen, mailegu-emailea bizirik zegoela, haren aholkuei erantzunez. Izan ere, ezagutu zutenek garai hartan Zierbenan eta Bañalesen eraikinen antza dute. Aita, Ochoa,

¹² XVI eta XV. mendeetan, senarrak bere emaztearenganako ahalmena izateko ohiturak instituzionalizatu ziren, indarkeria fisikoa erabili arte. “*Marital corrección*” deritzona garai hartan emakumeen jokabide txarra zuzentzeko eta bideratzeko legez eta sozialki baimendutako indarkeria mota bat izan zen. Orokorrean, emakumeak ez zuen tratu txarrik salatzen, eta aipatzera mugatzen zen. Tratu txarrak izan ziren elizako auzitegiek ezkontza-banantzeak erabakitzeke arrazoietako bat, baina ez baliogabetzeak edo dibortzioak. Tratu txarrak gutxitan salatu ziren arren, María Sarmientoren alaba Ginesa de Ayalaren kasua dugu, 1498an bere senar Ochoa de Salazar salatu zuena eta bere etxetik ihes egin zuena, Justiziari berarekin itzultzera ez behartzeko eskatuz, Koroari aseguru gutun bat bidaltzeaz gain. Ez da ezagutzen auziaren amaiera, baina bai 1507an berriro elkarrekin bizi izan zirela (Castrillo, 2020:54-56).

¹³ Agiri bidezko praktikak egiaztatzen du ezkonduak elkarrekin bizitzera behartuta zeudela eta etxetik alde egitea auzitegi baten aurrean sala zitekeela. Elkarrekin bizitzeko betebeharra ezkontideetako batek besteari behartzen bazion bakarrik gauzatzen zen, eta, elkarrekin adostuta bananduta bizi baziren, Justiziak ez zuen esku hartzen. Nahiz eta ados jarrita banantzea arazorik gabe onartzen zen, Zuzenbide kanonikoak eragozpen gutxi batzuk baino ez zituen ezarri, ezkontza deuseztatzeke modukoak (Castrillo, 2020:52-53).

1439an hil zenean, Lope eta Juana obra handiak egiten hasi ziren. Garai hartan, hiribilduen eta ermandadeen botere gero eta handiagoagatik ez ezik, Somorrostroko haranean gero eta etsai gehiago zituen leinuaren ahalmenagatik ere beharrezkoak ziren gotorleku horiek. Bloke militar horri hornidura-eranskinak eta -gelak gehitu behar zaizkio, eta haren perimetroa zabala zen. Bizkaian, eraikin militar horien ereduak dorre soil eta bakarra izaten zuen, batzuetan kanpoko defentsa bakarrarekin batera egiten zena, eta, beraz, San Martin aparteko erakuntzako da, hesi bikoitza izango baitu. Agian hasiera batean Butroitarren eredu izango zen. Etxeko gune giltzarri bat dorreko hormei itsatsitako eta korridore itxurako kamera batzuk ziren, Bizkaiko Kronikak liburuan kanpoaldeko areto deitzen dienak. Gela horietan oso ondo prestatuta zeudela esaten da, zeren eta konplimendu askoko gelak baitziren, eta dorrekoak baino hobeak geletarako. Lekuko batek, dirudienez Loperen *manceba* bat, bertan bizi izan zela dio: “*retraída de la dicha doña Juana*”. San Martin lursail zabalduaren gainean beste hiru eraikin gehiago banatzen ziren, gerra-izaera zuen gotorleku nagusiaren osagarri: egoitza-jauregia, eliza eta ospitalea. Jauretze-etxea zen garrantzitsuena eta gaur egun zutik dirauen bakarra. Bigarren eranskina eliza zen, baina gaur egun haren hondakinen aztarnak baino ez dira geratzen, ia ezer ez. Ospitale izendatutako hirugarren eraikina, jatorrian, Santiagoko ibilbidean ostatu bat izango zen, denborarekin, pobreentzako bideratuta, gerra garaietan erabilgarria ere (Aguirre, 1994:57-69).

Arkitekturaren arkeologiari dagokionez, ikus dezakegu nola aldatu den historian zehar gaztelu hau, Bizkaiko jatorrizko bertsio baten azken emaitzagatik horrela deitua eta bere konplexutasun harmonikoari esker horrela kalifikatzea merezi duen multzo arkitektoniko batekin. 1846an, J.E. Delmasek, erromantizismo garaikideak idealizatutako litografia batean, San Martinen Erdiko dorrea grabatu zuen, eta bere gezileihoak ondo markatuta zituen teilatuaren ertzean bertan. 1876an, bigarren gerra karlistaren ondoren, dorrea goiko gezileihorik gabe marraztua zen, eta aurreko hormaren eskuineko angelua erori egin zela ikus daiteke. 1911tik berreraikuntza bat bilatzen da, erorketa baten multzoa salbatzeko, eta urte batzuk geroago, J. Ybarrak gauzatu eta salbatu egin zuen Monumentu Nazional izendapenarekin, Bizkaiko Aldundiak jabeari erosi zionarekin eta, azkenik, berreraikuntza partzialarekin (Aguirre, 1994:59-71).

ONDORIOAK:

Erdi Aroko Emakumeen Historia berriaren barruan, ikuspegi desberdinak daude, eta Gradu Amaierako lan honetan ildo hauek jarraitu dira. XIV eta XV.mendeko emakumeak ez ziren ikusezinak, eta marjinaltasun sentazioa alde batera utziz, bizitzaren hainbat alderditan subjektu aktiboak eta protagonistak izan zirela baieztatzen duten adibide asko daude. Lan honetan emakume nobleak aztergai izan ditugu eta ez dugu ahaztu behar beren egoera sozio-ekonomikoagatik bizitza erosoago bat bizi izan zutela, protagonismo handiagoarekin. Aldi berean, azken urteetan argitaratutako bibliografia berriari esker, hipotesi berriak sortu dira, jada irekita dauden eztabaida zehatzetan parte hartuz edo aurreko ezagutza batzuk zalantzan jarriz. Horrek guztiak interpretazio historikoak berridazteko eztabaida orokorra zabaltzeko balio izan du

Egia esanda, beren posizio sozial pribilegiatutik, Iberiar Penintsulako erreginek eta emakume nobleek funtsezko rol aktiboa izan zuten leinuak bultzatutako estrategien multzoan, haren ugalketa biologiko eta sozialetik haratago doazenak. Azken hori laburbilduz, badirudi adierazi nahi izan dela etxea bezalako espazio pribatu batera murriztuta egonik, horrek otzanak izatea esan nahi zuela, baina “etxea” askoz harago zihoan, eta hierarkia bat finkatzen zen: non zerbitzariengan ez ezik, beste batzuegan ere eragina zuten. Emakume horiek, praktikan, finantzak maneiatzera eta kontratuak egitera iritsi ziren, ezkontza-lizentzia behar izan gabe. Elizaren eragin handia zuen kode zorrotz bati jarraitu behar zioten, eta kode horrek bere jarduerak eta izateko moduak neurtzen zituen (kastitatea, neurritasuna, obedientzia edota errukior izatea), baina horrek ez du esan nahi botererik ez zutenik. Janire Castrillok kasu desberdinak aztertu eta gero, Euskal Herrian jaun feudal baten funtzioak bete zituztela baieztatu du, andre feudalak izanez: omenaldi-pleituak jaso, akordioak lortu edo hiribilduak sortu, besteak beste.

Datu gutxi izan arren, ikerketaren helburu nagusietako bat erreginalitatearen azterketa Euskal Herrian aplikatzea izan da. Oraindik guztiz garatu gabe egon arren, bide berriak ireki daitezkeela argi dago. Gure kasuan, erreginek zuekatzen botere politikoa andre feudalen izaerara aplikatzea izan dugu helburu, Juana de Butronen kasua adibide gisa hartuz. Baieztatu daiteke, bizkaitar noble honi aplikatutako berrirakurketa historiko honek, bere kapitaletik, gaitasun pertsonaletatik, hezkuntzatik haratago, Erdi Aroko emakumea izatearen zama bizi izan zuela gizarte feudal, kristau eta patriarkalaren esparruan. Hala ere, haren interesak defendatzen jakin zuen, bere senarraren aurka eginez. Beste noblezia-leinu batzuekin

alderatuta, Salazartarren kasuan emakumeak protagonismoa izan zuen ezkontza-aliantzaz eta aitorten sozialaz haratago, emakume on baten ezaugarriak izateagatik. Juana andreak, maniobratzeko gaitasun apartarekin, bere helburuak lortu zituen, hau da, bere oinordekotzan maiorazkoa mantentzea. Nahiz eta desira, ez zen bete bere bizitza gauzatu eta urte batzuk bete harte. Laburbilduz, Juana de Butrón Múgicaren kasuagarai hartako emakume ahaldundu bat erakusten digu. Senarraren aurka eginez eta leinua kudeatuz, senide eta hurbilekoen gidari eta euskarri bihurtu zen.

“El más valer” Euskal Herriko Behe Erdi Aroko ideologian oso presente zegoen, garaiko gizartea laburtzen du. Horrek, Juana eta Lope García de Salazarren joerak baita maiorazkoarekiko gatazka ulertzen laguntzen du. Haien ezkontza, garaian ohikoa zen bezala ez zuten haiek erabaki, gurasoek ondo diseinatutako estrategia bat izan zen. Lan honetan zehar, garrantzi handia eman zaio ezkontzaren benetako esanahiari, eta, beraz, honek dakarren doteari. Dotea funtsezkoa zen ezkonberriek haien etxe edo ondarea sustatzeko. Emakumeek ezkondu bezain laster dotea eskuratzen zuten, gizonek, ordea, ez. Emakume nobleek ondare hau, askotan, fundazioak egiteko erabili izan zuten. Emakumeen ondasunen jabetza babestuta zegoen legalki eta Juanak, horri esker, Lopetik aldentuta bizitza propioa eraikitzeko gaitasuna izan zuen. Juanaren azken urteetan, garaiko idealak jarraituz, erromesaldia egin eta monastegi batean bizi izan zen, bere senarra etxean indarrez giltzaperatuta zegoen bitartean. Baliteke Loperen adulterioa eragin izana, nahiz eta legezko ondoriorik ez izan; hala ere, honek Juanari lagundu zion senarraren irudia zikintzen eta babes soziala lortzen.

Gradu amaierako lan honetan zehar, XV.mendean Euskal Herrian bizi izan zen andere noble baten adibidea jorratu izan da, Erdi Aroko emakumeen paperea azpimarratzeko xedearrekin. Orrialde hauetan egin den ekarpen xumea aspektu asko utzi ditu landu gabe, mota honetako lan batek dituen espazio muga dela eta. Hala ere, etorkizunerako geratzen dira hainbat gai, adibidez San Martingo dorrea ikertuz arkitekturaren arkeologia eta arkeologia feminista batuz. Era berean, Erdi Aroko emakumeak kolektiboki edo adibide konkretuen bitartez ikertuak izan dira, eta bidea hasita dagoen arren, denbora eta atentzio gehiago eskeni beharko genioke. Ez soilik ezagutza historikora mugatuz, baizik eta gaur egungu mundua ulertu eta, akaso hobetu aldera. Azken finean, historialarien lana ez da soilik iraganeko gertakizunak aztertzea mugatzen; funtzio sozial bat betetzen dute. Salatzea eta hezteka, beraz, ezinbestekoa deritzot.

Argitaratu gabeko iturriak:

Archivo Histórico Nacional (AHN), Secc. Consejos, Mayorazgos Españoles.

Iturri argitaratuak:

VILLACORTA MACHO, C. (ed.). (2015). *Libro de las buenas andanças e fortunas que fizo Lope García de Salazar*. EHU, Bilbo.

Bibliografia:

AGIRRE GARCÍA, J. (2019). “Bizkaiko andreak Jaurreriko buru Erdi Aroan”. En: *Ezkatuko ondarea: emakumeen errealitateak bizkaian*. Bizkaiko Batzar Nagusia, Bilbo, 38-49.

AGUIRRE GANDARIAS, S. (1994). *Lope García de Salazar: el primer historiador de Bizkaia (1399-1476)*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

ARANA, M. J. (1992). *La clausura de las mujeres : una lectura teológica de un proceso histórico* (Teología deusto, 25). Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

AVENOZA, G. (2006). “Lope García de Salazar: La formación de un bibliófilo y de su biblioteca, una visión general”. *eHumanista*, 6, 34-67.

AZNAR GIL, F.R. (2003). “Penas y sanciones contra los matrimonios clandestinos en la Península Ibérica durante la Baja Edad Media”, *Revista de Estudios Histórico-jurídicos*, (25), 189-214.

- (1989). *La institución matrimonial en la Hispania cristiana bajomedieval (1215-1563)*, Unib.Pontifixa, Salamanca.

BARCO CEBRIÁN, Lorena C. (2018). “Las voces de mujeres medievales a través de los testamentos y los inventarios: el caso de Leonor Pimentel y Zúñiga, I Duquesa de Plasencia”. *Voces de mujeres en la Edad Media: Entre realidad y ficción*. De Gruyter, Berlin/Boston, 124-134. Azken aldiz kontsultatua (2022-05-03) <https://doi.org/10.1515/9783110596755-009>

BAÑALES GARCÍA, G. (2002). “La herencia familiar y política de Lope García de Salazar”. En: Díaz de Durana, J.R eta Reguera, I. (ed.), *Lope García de Salazar: banderizo y cronista: actas de las II jornadas de estudios históricos “noble villa de portugete”*. Portugaleteko Udala, Portugaleta, 103-180.

BAZÁN DÍAZ, I. (2019). “Las mujeres medievales como agentes de paz y reconciliación. Elementos de análisis y discusión”. *e-Spania*. Azken aldiz kontsultatua (2022-05-03) <https://doi.org/10.4000/e-spania.31445>

- CASTRILLO CASADO, J. (2020). *Las mujeres vascas durante la baja edad media : vida familiar, capacidades jurídicas, roles sociales y trabajo*. Sílex, Madrid.
- (2020). “Recursos para integrar la historia de las mujeres medievales en las aulas”. *CIVINEDU*, 122-123.
 - (2021). ““¡ Quemaré todo Aramayona!” Mujeres, conflicto y guerra feudal en el País Vasco a finales de la Edad Media”. *Arenal. Revista de historia de las mujeres*, 28(2), 335-359.
- DACOSTA MARTÍNEZ, A. (2004). *Los linajes de Bizkaia en la Baja Edad Media: poder, parentesco y conflicto*. EHU, Bilbo.
- (2019). “Linajes y descendencia de los Mendoza desde 1332 con especial atención a la Casa de Mártioda”. En: *Por merced e mandado de mi sennora. El señorío de María de Mendoza a fines de la Edad Media. Nuevos textos para el estudio de la sociedad alavesa (1332-1511)*. EHU, Bilbo, 57-64.
- DEL VAL VALDIVIESO, M.I (2021). “Los estudios sobre las mujeres medievales hoy”. En: *La mujer en la Edad Media. XXX semana de estudios medievales*. Nájera, 19-52.
- DÍAZ DE DURANA, J. R., & DACOSTA MARTÍNEZ, A. (2013). “La dimensión social del liderazgo del linaje: solidaridad, poder y violencia (País Vasco, siglo XV)”, *Studia Zamorensia*, (12), 87-165.
- DÍEZ DE SALAZAR, L.M. (1990). “La mujer vasconavarra en la normativa jurídica (S. XII-XIV)”. En: *Las mujeres medievales y su ámbito jurídico : actas de las ii jornadas de investigación interdisciplinaria* (Bol. 4). Madrilgo Unibertsitate Autonomoa. 95-114.
- FUSTER GARCÍA, F. (2009). “La Historia de las mujeres en la historiografía española: propuestas metodológicas desde la Historia medieval”. *Edad Media: revista de historia*, (10), 247-273.
- GÁMEZ MONTALVO, M. F. (1998). *Régimen jurídico de la mujer en la familia castellana medieval*. Comares, Granada.
- GARCÍA-FERNÁNDEZ, M. (2011). “Las Sarmiento: mujeres con poder al final de la Edad Media”, en: M.a Isabel del Val Valdivieso y Cristina Segura Graíño (coords.), *La participación de las mujeres en lo político. Mediación, representación y toma de decisiones*, Almudayna, Madril, 135-154.

- GARCÍA HERRERO, M.C. (2015). “María de Castilla, reina de Aragón (1416-1458): La mediación incansable”, *e-Spania*, (20). Azken aldiz kontsultatua (2022-05-03) <https://doi.org/10.4000/e-spania.24120>
- GONZÁLEZ DE FAUVE, M^a. E. eta FORTEZA, P. (1996). “Linaje y poder a través de un escrito femenino: las memorias de Leonor López de Cordoba (s. XV)”, *Meridies*, (3), 17-28.
- GONZÁLEZ-DORESTE, D. M. (2019). “Mujeres bíblicas como modelos de conducta femenina a finales de la Edad Media”, *Fortunatae*, (30), 45-60. Azken aldiz kontsultatua (2022-05-03) <http://riull.ull.es/xmlui/handle/915/17751>
- GUERRERO NAVARRETE, Y. (2016). “Testamentos de mujeres: una fuente para el análisis de las estrategias familiares y de las redes de poder formal e informal de la nobleza castellana”, *Studia historica. Historia medieval*, (34), 89-118.
- JUARISTI LINACERO, J. (1994). “Los mitos de origen en la génesis de las identidades nacionales la batalla de Arrigorriaga y el surgimiento del particularismo vasco (ss. XIV-XVI)”, *Studia Historica. Historia medieval*, (12), 191-228.
- MIRÓN PÉREZ, M.D. (2012). *Las “buenas obras” de las reinas helenísticas: benefactoras y poder político*. UGR, Granada.
- MUÑOZ FERNÁNDEZ, Á. (2013). “María y el marco teológico de la Querrela de las Mujeres (interferencias y transferencias con los debates culturales de la Castilla siglo XV)”, *Arenal*, 20/2, 235-262.
- (2021). “Los estudios sobre las mujeres medievales. Agencia femenina y poder: claves y problemas de un momento de consolidación historiográfica”, *La mujer en la Edad Media. XXX semana de estudios medievales*. Nájera, 327-366.
- MUÑOZ SAAVEDRA, E. (2016). “Catalina de Bedia: una fembra ante la justicia criminal. El individuo y su colectividad en una villa cantábrica a fines del siglo XV (Bilbao)”. *Revista de Historia Social y de las Mentalidades*, 20(1), 89-125.
- NASH, M. eta TAVERA GARCÍA, S. (2003). *Las mujeres y las guerras: el papel de las mujeres en las guerras de la Edad Antigua a la Contemporánea*. Icaria : Asociación Española de Investigación de Historia de las Mujeres (AEIHM), Bartzelona.

- PAGÈS, A. (2017). “El Queenship como modelo teórico de poder formal e informal aplicado a la nobleza: apuntes para una propuesta metodológica”, *Journal of Feminist, Gender and Women Studies*, (5), 47-56.
- PAZ MORO, A. (2019). “Mujeres con poder en la Álava bajomedieval: María Sarmiento, madre de Pedro de Ayala, conde de Salvatierra”, *Edad Media. Revista de Historia*, (20), 313-338. Azken aldiz kontsultatua (2022-05-03) <https://revistas.uva.es/index.php/edadmedia/article/view/3588/2895>
- “Las muchas e notables dueñas: las estrategias de alianza linajística tejidas en torno al Canciller Ayala” (con Dacosta, A.), en Amrán, Rica (coord.), *Releyendo Pedro López de Ayala diez años después*, Binges, 29-49. Azken aldiz kontsultatua (2022-05-03) https://www.academia.edu/39750662/2019_Las_muchas_e_notables_dueñas
- PELAZ FLORES, D. (2014). “A la más virtuosa de las mujeres. La reina María de Aragón (1420-1445) como impulsora de las letras en la Corona de Castilla”, *Hispania*, 247, 331-356. Azken aldiz kontsultatua (2022-05-03) <http://hispania.revistas.csic.es/index.php/hispania/article/view/428/424>
- PELAZ FLORES, D. & DEL VAL VALDIVIESO, M. I. (2015). “La Historia de las Mujeres en el siglo XXI a través del estudio de la Reginalidad medieval”. *Revista de historiografía (RevHisto)*, (22), 101-127.
- SÁNCHEZ ROMERO, M. (2005). *Arqueología y género*. UGR, Granada.
- SEGURA GRAIÑO, C. (2008). “Historia de las mujeres en la Edad Media”. *Medievalismo*, (18), 249-272.
- (2008). “La violencia sobre las mujeres en la Edad Media. Estado de la cuestión”. *Clio & Crimen*, (5), 24-38.
 - (2016). “La construcción de la historia de las mujeres en la Edad Media en los Reinos Hispanos”. *Índice Histórico Español*. 77-93.